

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/03/25

Ordua: 18:00ak

Tokia: Udaletxeko areto nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Olaiia Lasa Olaziregi
Garazi Urdampilleta Astibia
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Irigorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Maria Victoria Joaristi Olariaga

Ezin etorria adierazi dute:

Ekain Susperregi Iburguren

AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarrari dagokion aktaren onarpena.
2. Oiartzungo udal musika-eskolaren Erregelamenduaren hasierako onarpena (2025ID340007)
3. Oiartzungo udalerrian udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren aldaketa (2023ID340001)
4. Zaria mendian katastroko 18. poligonoko 35.lursailean 28 m²-ko zesioa ITELAZPI S.A.ren alde, egungo antena ordeztzeko (2026ON240001)
5. Udala eta Hautzaro Ikastolaren arteko hitzarmena: 2025eko dirulaguntzaren zuriketa onartzea (2017ZZ200003)
6. 2026 urterako Oiartzungo udala eta Hautzaro Ikastolaren arteko hitzarmena eta dirulaguntzaren onarpena (2026ZZ200017)
7. Beste organoen jardueraren jarraipena.
8. Eskari-galderak.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Udalbatzari hasiera eman aurretik, egun notizia den, Oiartzunen gertatutako sexu eraso gai delikatuaren inguruan bi alderdiek adostutako adierazpen instituzionala egin du Alkateak.

“Aste honetan bertan, Gipuzkoako epaitegian irakasle baten eskutik hainbat ikastetxetan, tartean Oiartzungo ikastetxe batean irakasle batek nerabeekin izandako jokamoldeak epaituak izaten ari dira. Horren aurrean, Oiartzungo Udalak adierazten du jokamolde horiek guztiz gaitzesgarriak eta onartezinak direla. Ikasleen eta epaiketaren parte hartzen ari diren gainontzeko parteen lekukotzek erabateko sinesgarritasuna dute.

Irakaslearen jokamoldeengatik kaltetuak edo erasotuak sentitu diren nerabe oiartzuarrei babes osoa adierazten die Oiartzungo Udalak. Datozen asteetan konponketa bidea landuko du udalak berdintasun sailetik. Hala nahi edota behar duen pertsona orok jo dezake udaleko gizarte zerbitzuetara, berdintasun sailera edota herriko asanblada feministara babes eta aholkularitza juridiko, sozial, psikologiko bila.

Idatzi honen bidez herriko asanblada feministak azken hilabeteetan gai honen inguruan egindako lana eta biktimen bidelagun izateko hartutako ardura eta ausardia ere eskertzen ditu udalak.

Mota honetako gertaerak gure gizartean oraindik nagusi diren indarkeria matxisten eta genero desorekaren isla arbuigarriak dira. Ezinbestekoa da lanean jarraitzea, eragileekin eta herritarrekin batera, balioetan oinarritutako heziketaren eta pertsona guztien arteko berdintasunaren alde. Eta ezinbestekoa da baita ere, helmugara iritsi artean, arbuigarriak diren keinu, gertaera eta eraso guztiak salatzen jarraitzea.”



-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2026ko otsailaren 25ean egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu zen aho batez, aldeko 16 botorekin (EH Bildu 12, EAJ/PNV 4)

-II-

OIARTZUNGO UDAL MUSIKA-ESKOLAREN ERREGELAMENDUAREN HASIERAKO ONARPENA

AURREKARIAK

2025eko maiatzaren 7ko Alkate-Probidentzia bidez Oartzungo Udaleko Alkateak, beharrezkotzat jotz Oartzungo Udalean udal musika-eskola zerbitzu publiko bat ezartzeko prozedura martxan jartzea erabaki zuen. Zegokion tramitazioa jarraitu ondoren, 2025eko azaroaren 26ko udalbatzak (GAO 2025/12/10) Oartzungo udalerrian musika-eskolaren zerbitzu publiko berria ematea eta azterketa batzordeak egindako horri dagokion proiektua behin betiko izaeraz onartzea.

OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA-ren xede nagusia musikaren arloan Oartzunen dagoen tradizioari eta eskaera sozialari erantzutea izango du, hainbat espezialitateetan adin guztietako pertsonen bideratutako irakaskuntza ez-arautua eskainiz.

Araudi honen helburua da OIARTZUNGO UDAL MUSIKA-ESKOLA-ko antolaketa eta barne funtzionamendua arautzea.

Euskadiko Toki Korporazioen araubideari buruzko 2/2016 Legeak udalerrien kompetentziak araututakoan xedatzen du udalek berezkoak ez dituzten eskumenak egikaritu ahal izango dituztela, beti ere 16.6 artikuluan ezarritako bikoiztasunik ezaren inguruan tramitazioa burutuz gero. Horrela ezarritako txostenak eskatu eta eman dira, espedientean jasota dagoen moduan. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, gaiaren arabera administrazio eskuduna den aldetik, bikoiztasunik dagoen edo ez dagoen adierazten duena, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Ogasunak, udalerrien finantza-tutoretza esleituta duen administrazioa den aldetik, udal-ogasun osoaren finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzeari buruzkoa (biak 2025/10/14 datan). Horrela baieztatzen du udal idazkariak udalbatzaren akordioaren aurretik egindako txostenak (2025/11/14).

Udal idazkariak prozedurari buruz txostena eman du eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 22.2.d) artikuluan xedatzen duenaren arabera, Udalaren Osoko Bilkura da ordenantzak onartzeko eskumena duen organoa, eta erabakia bertaratutako kideen gehiengo soilez hartu behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.1 artikuluekin bat etorriz.

Erregelamendua edo ordenantza onartzeko edo aldatzeko proiektua egin aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan araututako kontsulta publikoa egin da Oartzungo Udalaren web atariaren bidez. Emandako epean ez da iradokizunik jaso.

Ordenantzak egitean ala gauzatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jardungo dute: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Erregelamendu-proiektuen hitzaurrean behar bezala justifikatuta geratuko da printzipio horietara egokitzen direla.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.5 artikulua arabera, gardentasun-printzipioa aplikatuz, administrazio publikoek aukera emango dute indarrean dagoen araudia eta hura egiteko prozesuaren dokumentuak erraz, modu unibertsal eta eguneratuan eskuratzeko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera; argi eta garbi definituko dituzte arau-ekimenen helburuak eta horien justifikazioa hitzaurrean edo zioen azalpenean; eta aukera emango dute hartzaile izan daitezkeen arauak egiten parte-hartze aktiboa izan dezaten.

Alde horretatik, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7.c) artikulua dioenez, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, beren ekimeneko erregelamendu-proiektuak argitaratuko dituzte.

Ordenantza onartzeko proiektua egin eta jaso ondoren, udalbatzak hasierako onespina eman beharko dio (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua), Informazio Batzordearen irizpena jaso ondoren, eta jendaurrean jartzeko epea irekiko da, gutxienez hogeita hamar egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, web orrian eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, interesdunek espedientea aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Idazkariaren txostenaren, kontu-hartzailearen txostenaren, Genero eta Hizkuntza eragin txostenei baldintzatua eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak 2026ko martxoaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehena.- Hasierako onespina ematea Oiartzungo udal musika-eskola arautzen duen Erregelamenduari, eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, administrazio-espediente hau, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiek Udal bulegoetan espedientea aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Jendeari erakusgai egoteko epea igarotzen bada inolako erreklamaziorik edo oharpenik jaso gabe, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Idazkariaren txostenaren, kontu-hartzailearen txostenaren, Genero eta Hizkuntza eragin txostenei baldintzatua eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak 2026ko martxoaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du, Oiartzungo udal musika-eskolaren erregelamenduaren hasierako onarpenera.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	16	12 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

OIARTZUNGO UDALERRIAN UDAL HONDAKINAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA

Oiartzungo udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantzak, 2023/05/24ko 99. GAOn argitaratutakoak, 2. artikuluan, udalerrri osoa aplikazio eremutat izan arren, ez zuen bilketaren atala garatzen industria guneeetan, tailerretan eta beste jarduera ekonomikoetako esparruetan.

Horregatik, korporazioak zerbitzu hori aipatutako esparruetan zuzeneko kudeaketa moduan emateko erabakia hartu duenez, ordenantza honen eguneraketaren xedeak dira, batetik, Oiartzungo udalerriko jarduera ekonomikoetarako erabilera duten eremuetako komertzioek, enpresek eta industriek sortzen dituzten merkataritza-hondakin ez-arriskutsuetarako eta etxebizitzetakoak bezalako udal-hondakinietarako bilketa zerbitzuak definitzea eta, bestetik, zerbitzua erabiltzeko baldintzak zehaztea.

Xede horrekin, honako artikulua hauek aldatuko dira: 6. artikulua, hondakinen definizioari buruzkoa; 22. artikulua, pertsona eta erakunde erabiltzaileen eskubide, betebeharrak eta erantzukizunari buruzkoa; eta kapitulu berri bat sortu da, II. tituluan, 48. artikulutik 54.era bitartean, udal-hondakinen bilketa arautzeko, jarduera ekonomiko gisa kalifikatutako eremuetan kokatutako industria, tailer eta gainerako lokal eta pabilioietan. Azkenik, II. tituluko zehapen-araubidea egokitu eta osatu da 62. artikulutik 65.era; eta guzti hori 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoaren arabera. Halaber, erredakzioan zehar terminologia neutroa erabili da, emakumeen eta gizonen berdintasuna errespetatzen duen administrazio-hizkera sustatuz.

Guzti hau kontuan hartuta, Udal Mendi eta ingurumen teknikariak eta udal idazkariak egindako aldeko txostenak ikusirik, hizkuntza eta genero arloetako eraginaren txostenak aintzat harturik eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak 2026ko martxoaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Oiartzungo udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren aldaketari.

Bigarrena.- Udal Ordenantzaren aldaketa jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, hogeita hamar eguneko epean espedienteaz aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Erreklamazioak edo iradokizunak Udalbatzak ebatziko ditu.

Aldi berean, udal ordenantzaren aldaketaren testua Udalaren web atarian [<https://www.oiartzun.eus>] argitaratzea, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, behin betikotzat onartua ulertuko da, berriazko erabakirik hartu behar izan gabe.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Udal Mendi eta ingurumen teknikariak eta udal idazkariak egindako aldeko txostenak ikusirik, hizkuntza eta genero arloetako eraginaren txostenak aintzat harturik eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak 2026ko martxoaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du, Oiartzungo udalerrian udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	12 EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	4 EAJ/PNV

-IX-

ZARIA MENDIAN KATASTROKO 18. POLIGONOKO 35.LURSAILEAN 28 M²-KO ZESIOA ITELAZPI S.A.REN ALDE, EGUNGO ANTENA ORDEZTEKO

Udal Mendi eta Ingurumen teknikariak egindako txostenaren arabera, 2021eko ekainaren 7an ITELAZPI, s.a.-k 2.063.4 Zaria onura publikoko mendian, Landa Katastroko 18. poligonoko 35. lursailean eta Aiako Harria parke naturalaren baitan kokatzen den telekomunikazio-zentroa ordezteko baimen eskaera egin zuen.

Eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu zuen: Ingurumen inpaktuaren azterketa, “Mirandaola Servicios Ambientales” bulegoak idatzitakoa eta 30 metroko altuerako torrearen egitasmoa “Semi” bulegoko Guillermo Jimenez Suarez industria ingeniari teknikoak idatzi eta Sevillako Industria Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak 2021/05/03an sendetsitakoa.

Egun Zaria mendiko telekomunikazio-dorrea eta haren ondoan dagoen txabola bat, ekipo batzuk gordetzeko erabiltzen dena, kendu eta berriak jartzea proposatzen zuen, egungo instalazioak azpiegitura- eta segurtasun-arriskuak dauzkalako.

Telekomunikazio-zentroak zenbait zerbitzuetarako erabiltzen da: Babes Zibila, Gurutze Gorria, DYA, Iberdrola, Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaileak bai eta meteorologia edo ingurumen zerbitzuak ere, betiere irabazi-asmorik gabe ematen badira. Gaur egungo azpiegitura honako elementuak osatzen dute:

- Linea elektrikoa.
- Aurrefabrikatutako etxola. Gurutze Gorria.
- Sestra azpiko gela. Iberdrola.
- 25 metro altuerako torrea eta aurrefabrikatutako etxola. Udalarenak.

Telekomunikazio-zentroa ordezteko ondorengo elementuak proposatzen ditu ITELAZPI-k:

- Egungo torrea 30 metroko altuerako torre berriaz ordeztea.
- Torre berriaren segurtasun elementuak ezartzea.
- 4 x 2,80 m-ko aurrefabrikatutako etxola berriaz egungoa ordeztea.
- Segurtasuneko hesi perimetrala ezartzea.

2021eko abenduaren 2an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketarako Zuzendari Nagusiak “Oiartzungo Zaria mendian telekomunikazio-zentro bat ordezteko obrak interes publikotzat” jotzea erabaki zuen.

2023ko uztailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariak, ebazpena eman zuen. Ebazpenaren bigarren atalean babes-neurri eta zuzenketa neurriak ezarri ziren eta hirugarren atalean ingurumenaren jarraipena egiteko programari gehitu beharreko kontrolak zehaztu ziren.

2025eko urtarrilaren 23an, AESA Aire Segurtasuneko Estatu Agentziak telekomunikazio-zentroa ordeztu eta erabilerarako inolako eragozpenik ez zegoela adierazi zuen (A22-0529 espedientea).

2025eko urriaren 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Foru Diputatuak, Zaria onura publikoko mendia ITELAZPI Telekomunikazio Sozietate Publikoaren alde okupatzeko eskaera onartu zuen.

Guzti hori kontuan edukita, Oiartzungo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko abenduaren 22an egindako batzarrean ITELAZPI-ri Zaria mendian dagoen telekomunikazio-zentroa ordeztuko duen zentroa eraikitzeko obretarako baimena eman zion. Baimen horretan, obrak hasi aurretik bete beharreko baldintzetan ITELAZPI eta Oiartzungo Udalaren artean zerbitzu erabilera hitzarmena sinatu beharko dela adierazten da.

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (oinarrizko legeriaren izaera duen artikulua), lehia-araubidean emango dira jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak. Hala ere, zuzenean ematea erabaki ahal izango da lege honen 137.4 artikuluan aurreikusitako kasuetan, salbuespeneko inguruabarrak gertatzen direnean, behar bezala justifikatuta, edo legeetan ezarritako beste kasu batzuetan. Jarraian, aurrera eraman beharreko prozedura deskribatzen da. Bukaeran dio, kasu honetan, ikusirik komunikazio-antenaren instalazioa eraikita dagoela eta txosten honen xede den lursaila duela hamarkada batzuetatik okupatzen duela, eta, gaur egun, jarduketa eta instalazioa ordeztzeko obrak legeztatzea baino ez dela, izapidea alderdien betebeharrak eta legez eska daitekeen gainerako edukia ezartzen dituen hitzarmen berria sinatzera murriztu ahal izango da.

Aldi berean, ITELAZPI S.A.k “Lankidetzeta hitzarmena, komunikazio zerbitzuak emateko ZARIA-ko zentroaren lagapenaren eta eraikitzez bitartez” izeneko hitzarmena proposatu du. Udal Mendi eta Ingurumen teknikariak bere txostenean egindako ekarpenak uztartu ditu eta legez ezarritako aspektuak barneratzen ditu.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkariaren eta Ingurumen teknikariaren txostenen baitan eta Lurralde batzordeak 2026eko martxoaren 4ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehenengoa.- 2.063.4 Zaria onura publikoko mendian, Katastroko 18. poligonoko 35. lursailan, ITELAZPI S.A.k Telekomunikazio Sozietate Publikoaren alde 28 m²-ko azalera okupatzea onartzea antena eta etxola berri bat instalatzeko.

Bigarrena.- Udala eta ITELAZPI S.A.ren arteko hitzarmena onartzea.

Hirugarrena.- Udalak berariaz baimena ematen du lehen deskribatutako lursaileraino doan bidetik ITELAZPI-ren enplegatuek eta ibilgailuak pasatzeko, baita horrek obrak, instalazioak eta zerbitzuak emateko kontratatzen dituen enpresetako pertsonak edo ibilgailuak ere pasatzeko, instalazioak eta telekomunikazio ekipamenduak mantentzeko berezko zereginetarako, eta soilik xede horretarako.

Okupazioak ez du bere ahalmenik ematen errepide, bide, pista edo bestelakoetako zortasun-obrak egiteko, eta, beraz, okupatzaileak obra horien beharra eskatu eta justifikatu beharko du. Kasu horretan, baimena lortu beharko du, baimena bidezkoa den eta nola gauzatu beharko den zehazteko. Salbuespen bera aplikatuko da mendiko iturburuak edo Administrazioaren jabetzak aurretik egindako obrak edo instalazioak oztopatzen edo erabilezin bihurtzen badira, horien izaera edo erabilera edozein izanda ere.

Ez da aurreikusten lehendik dauden sarbideak irekitzea edo egokitzea. Ondorioz, sarbide horiek egungo egoeran erabiliko dira.

Laugarrena.- Lagapena ITELAZPI S.A.rentzat doakoa da baina honako baldintzak ezartzen dira:

1.- Laguntza eta sorospena ematea helburu duten eta irabazi-asmorik gabekotzat jotzen diren erakundeek (DYA errepideko laguntza, udal-agenteen komunikazioak eta udal zerbitzuak, babes zibila, suhiltzaileak, eta Gurutze Gorria, besteak beste) ez dute ordaindu beharko dorreko lurzorua eta espazioa okupatzeagatiko tarifa erabaki honen xedea da.

2.- Zaria-ko komunikazio-zentroak gaur egun zerbitzua ematen dien erakunde bereberri emango die zerbitzua; Babes Zibila, Gurutze Gorria, DYA, Iberdrola, Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaileak bai eta meteorologia edo ingurumen zerbitzuak ere, betiere irabazi-asmorik gabe ematen badira.

3.- Oiartzungo Udalak Zaria-ko komunikazio-zentroaren azpiegiturak behar izanez gero bere zerbitzuak emateko, horiek lehentasuna izanen dute eta ez dute inongo kosterik izango udal erakundearentzat.

3.- Telekomunikazio-enpresa pribatuei zerbitzu berriak eman nahi bazaizkie (lehendik dagoen azpiegituraren ezaugarriak aldatu gabe ere), Oiartzungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera egin beharko zaio alde zaurretik, zerbitzua emango zaien erabiltzaileak eta zerbitzu horri lotutako prezioak adierazita. Hala badagokio, eskatutako erabilerarekiko proportzionala den kanon bat ezarri ahal izango da.

4.- Handitze edo aldaketa oro, behar besteko aurrerapenez eskatu beharko zaio Oiartzungo Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta ezin izango da egin baimena eman arte.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Idazkariaren eta Ingurumen teknikariaren txostenen baitan eta Lurralde batzordeak 2026eko martxoaren 4ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du, Zaria mendian katastroko 18. poligonoko 35.lursailen 28 m²-ko zesioa ITELAZPI S.A.ren alde, egungo antena ordeztzeko.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	16	12 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-V-

UDALA ETA HAURTZARO IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENA: 2025EKO DIRULAGUNTZAREN ZURIKETA ONARTZEA

LEHENA.- Haurtzaro Ikastolak eta Oiartzungo Udalak 2018ko urtarrilaren 8an lankidetzahitzarmena sinatu zuten.

Hitzarmen honetan Haurtzaro Ikastolaren aldeko diru-laguntzak zehazten ziren lau ataletan: ohiko mantenua eta obra txikiak, obra handiak, garrario diru-laguntza eta beste dirulaguntzak. Bestalde, Haurtzaro Ikastolak bere instalazioak doan uzteko konpromisoa hartzen zuen, eta baita euskara eta euskal kultura sustatzeko lanean jarraitzeko eta herrian sortzen diren ekimenei babesa eta laguntza emateko.

2021eko abenduaren 22an Udal Osoko Bilkurak hitzarmena beste lau urtez luzatzea erabaki zuen, indarrean zegoen termino berdinetan.

2023ko martxoaren 1ean Udal Osoko Bilkurak, Haurtzaro Ikastolaren eta Udalaren arteko hitzarmenaren bigarren modifikazioa onartu zuen, honela jasoz orain 1.1. klausularen c) hizkia:

“Udalak ikasturteko emango duen gehieneko zenbatekoa 447.310,32 € izango da. Haurtzaro Ikastola, S.Koop.-ak diru-laguntza hori erabiliko du atezainaren soldata ordaintzeko eta ondorengo kostuak estaltzeko: mantenu konponketa txikiak, argindarra, erregaiak, igogailua eta berogailuaren mantenua eta eraikinaren garbiketa. Diru-laguntzaren zenbatekoa urtez-urte egokituko da garbitzaileen soldata goeraren arabera, eta Haurtzaro Ikastola, S. Koop.-k Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin sinatutako itunaren ondorioz jasoko duen diru-laguntzaren baitan.”

Udal Osoko Bilkurak 2025eko urtarrilaren 25eko erabakian, 2025 urteko Haurtzaro Ikastola, S.Koop.ren mantenu gastuak ordaintzeko 412.543,86 euroko dirulaguntza onartu zuen. Akordio honetan honakoa jaso zen hitzez hitz:

“Haurtzaro Ikastola, S. Koop.-ak dirulaguntza hori erabiliko du atezainaren soldata ordaintzeko eta ondorengo kostuak estaltzeko: mantenu konponketa txikiak, argindarra, erregaiak, igogailua eta berogailuaren mantenua eta eraikinaren garbiketa.

Edonola ere, dirulaguntza bikoitza eta gainfinantzaketa ekidite aldera:

- *udalaren dirulaguntza Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin dagoen itunaren ondorioz jasotako dirulaguntzaren ondorio desberdinetarako erabili beharko da, zuri ketan justifikatu beharko dena; eta, era berean,*
- *udalaren laguntzaren kopurua dagokion moduan justifikatzeaz gain, justifikazio-kontuetan jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztiak zerrendatu beharko dira.”*

BIGARRENA.- Haurtzaro Ikastolak udal erregistroan aurkeztu ditu urtarrilak 26an 2025 urteko mantenu-gastuetako dirulaguntzaren justifikazio-kontuak kontuhartzaitzak aztertzeko. Bertan, 479.367,69 € ko gastuak aurkezten ditu. Era berean, udalaren laguntzaren kopuruari dagokion gastua aurkezteaz gain, justifikazio-kontuetan jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztien zerrenda aurkeztu du, adieraziz ez dagoela gainfinantzaziorik, horretarako Jaurlaritzako Hezkuntza sailak itunpeko zentro den aldetik ematen dion dirulaguntzaren kontzeptuak eta kopuruak xehetasunez justifikatuz.

2026ko martxoaren 11n, kontuhartzaitzatik eskatuta dokumentazio osagarria aurkeztu du: diruz lagundu daitezkeen sei kontzeptuengatik izandako gastuen justifikazioaren zuzenketa (473.656,79 €ko gastuak); horien banakapen analitikoa, finantzaketa-iturrien araberako esleipenarekin eta partiden egozpen bikoitzik gabe; eta ordainketa ziurtagiriak.

Guztira aurkeztutako gastuen zenbatekoa 473.656,79 € dira ondorengo kontzeptuetan:

Konponketak, lan txikiak	139.654,48
Mantenua igogailua, berogailua	5.121,35
Pellet, gasa, (erregaiak)	19.368,96
Argindarra	21.967,95
Garbiketa	226.992,58
Atezainaren subentzioa	60.551,47
GUZTIRA	473.656,79 €

HIRUGARRENA- Kultura teknikariak egindako txostenean, lankidetzahitzarmenean eta dirulaguntza ematerakoan jarritako baldintzen betekizun mailari buruzko azterketa egin da.

Batetik, Haurtzaro Ikastolak eta Oiartzungo Udalak 2018ko urtarrilaren 8an sinatu zuten lankidetzahitzarmenean, Haurtzaro Ikastolak honako konpromisua hartu zituen, eta ondoren zehazten da era berean, horien betetze-maila:

2.9 Haurtzaro Ikastolaren ikasgelak eta espazio amankomunak erabiltzeko lehenetsuneko aukera izango du Oiartzungo Udalak. Ikastolak konpromisoa hartzen du bere instalazioak Oiartzungo Udalari eta Oiartzungo herriari doan, orain arte bezala, eta bere jardura bermatzen den neurrian, uzten jarraitzeko.

Bete da, Haurtzaro Ikastolaren espazioetan burutu dira hainbat kirol eta kultur jardura urte osoan zehar. Esate baterako, eta adibide bezala, Haurtzaro Ikastola Xanistebanak Jai Batzordearen kide izan da eta bertako baliabideekin edo bertan antolatu ditu honako jarduerak:

- Zaharren Egoitzara bisitaldia Haurtzaroko dantzariekin
- Herri kirolen jaialdia
- Haurren danborrada
- Haurtzaroko Txoko Jolasa
- Gaztetxoentzat disko festa
- Haur eta gaztetxoentzat parkea (puzgarriak)
- Haur eta gaztetxoentzat txokolatada

2.2 Haurtzaro Ikastola irabazi asmorik gabeko eta Herri Onurako izendapena duen erakundea da. Ondorioz, Ikastola desagertzen bada, bere patrimonioa Oiartzungo Udalaren esku geldituko da, eta lortutako irabazirik ez diren hezkuntza berrinbertituko dira.

2.3 Udalaren partaidetza Ikastolako kudeaketan: Udalak Ikastolako Kontseilu Errektorean parte hartzeko eskubidea izango du, kooperatibaren legeak jasotzen duen moduan, ahotsarekin eta botorik gabe. Udal ordezkariak, beste kontseilukide guztiek bezala, Ikastolako estatutuaren jasotzen diren arauak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, batez ere informazioaren konfidentzialtasunari eta erabilera zuzenari dagokienean.

Baldintza hau ere bete izan da, udalak *Ikastolako Kontseilu Errektorean* partaide izateko kidea izendatu zuelako.

LAUGARRENA.- Bestetik, 2026an Udal Musika Eskola berria sortzeko Udalak 2024 eta 2025 urteetan sustatu duen parte hartze prozesuan aktiboki parte hartu du Haurtzaro Ikastolak eta bertan musika eskolak eta musika taldeen kontzertuak burutzeko disponibilitatea eskaini du Haurtzaro Ikastolak. Musika-Eskola berria ikastetxeetako instalazioetan oinarrituko da bere hasierako ikasturtean behintzat.

Orohar esan behar da, Haurtzaro Ikastola kultur eragile oso aktiboa dela, eta berak bultzatutako jarduerak presentzia handia dutela Oiartzungo kultur bizitzan urte osoan zehar.

BOSTGARRENA.- Dirulaguntzaren legezkotasunaren inguruan, kanpoko aholkulari baten txostena eman da, udalek hezkuntza arloan dituzten eskumenen eta kontzertatutako ikastolen alde eman dezaketen dirulaguntzen ingurukoa. Bertan, Jaurlaritzak hezkuntzaren jardun hori diruz laguntzen duen heinean bikoiztasunik egon litekeen aztertu da eta udalak, zenbait arloetan duen sustapen eskumena erabiliz, funtzionamendu gastuen defizita finantzatu dezakeela ondorioztatzen da, beti ere hezkuntza saileko kontzertuak estaltzen ez duen kopuruetan.

Txosten horren osagarri, udal idazkariak bere txostena ere eman du honakoa ondorioztatuz, udalak itunpeko zentroei dirulaguntza eman ahal izango diela Jaurlaritzak emandako dirulaguntza gainditzen duten gastuak estaltzera bideratzen bada (defizita), beti ere entitatearen guztizko gastuak guztizko dirusarrerak gainditzen badituzte eta kontzeptu bakoitzeko Jaurlaritzaren dirulaguntzak uzten duen defizitarengatik.

SEIGARRENA.- Udal kontu-hartzaileak egindako txostenaren ondorioz, Haurtzaro ikastolak aurkezturiko dokumentazioa azterturik, 2025erako onarturiko dirulaguntzaren kontuak zuritu dira eta honako alderdiak egiaztatu dira:

- diruz lagundutako gastuen objektua eta aurkeztutako gastuen izaera bat datozela hitzarmenean eta Udalbatzaren erabakian jasotakoarekin,
- gastuen ordainketak egiaztatu direla,
- eta, egindako egiaztapenen arabera, ez dela antzeman dirulaguntzaren xede berberari lotutako bikoiztasun edo gainfinantzaketa egoerarik.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenen baitan eta Herritarrak batzordeak 2026eko martxoaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Bakarra.- Haurtzaro Ikastolak aurkeztutako 2025. urteko dirulaguntzaren justifikazio-kontua aztertzerakoan, sinatutako hitzarmenean Haurtzaro Ikastolak adierazitako konpromisuak bete dituela kontuan hartuta. Eta Haurtzaro Ikastola Oiartzungo kultur bizitzako eragile garrantzitsu bezala, bertako baliabideekin edo bertan antolatu dituela kultura-jarduera ugari, ebazpen honetako hirugarren aurrekarian adierazitakoak. Era berean, udal idazkari eta kontu-hartzaileak aldeko txostenak egin dituztela ikusirik, Haurtzaro Ikastolak aurkeztutako 2025. urteko dirulaguntzaren justifikazio-kontua eta zuriketa dokumentazio ontzat ematea, Oiartzungo dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 31 eta hurrengo artikuluen ondorioetarako.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Janire Mitxelena EAJ/PNV partiduko zinegotziak hitza hartzen du, ondorengo adieraziz

“Lehenik eta behin, gure taldeak Haurtzaro Ikastolak egiten duen lana aitortu nahi du, eta hezkuntza sistemaren aniztasuna baloratzen dugu.

Baina dirulaguntza publiko baten kasuan, oinarritzko printzipio bat dago: udalaren finantzaketa osagarria izan behar dela, eta ezin duela beste administrazio batek jada estaltzen duen gastua ordezkatu. Espediente hau aztertzerakoan, informazio osagarria eskatu behar izan dugu, eta jasotako dokumentazioak ez du argi uzten zein gastu estaltzen dituen Eusko Jaurlaritzak, eta zein diren benetan estaldura gabe geratzen direnak.

Horren ondorioz, ez dago behar bezala egiaztatuta udal dirulaguntza benetan osagarria denik, eta ez dela beste finantzaketa publiko batekin gainjartzen.

Gainera, dokumentazioan ageri denez, Eusko Jaurlaritzak 4 milioi euro baino gehiago finantzatzen ditu, eta udalaren ekarpena 400.000 eurotik gorakoa da. Aldi berean, gastu nagusien artean garbiketa bezalako kontzeptuak ageri dira, 200.000 eurotik gorakoak.

Testuinguru horretan, aurkezten den 170.000 euro inguruko defizita nola kalkulatu den eta zein gasturi dagokion ez dago behar bezala argituta.

Gainera, aurkeztutako gastuen artean izaera oso desberdineko kontzeptuak sartzen dira. Alde batetik, mantenu eta funtzionamendu beharrezko gastuak egon daitezke; baina bestetik, bestelako gastu batzuk ere ageri dira, hala nola komunikazioa, publizitatea edo bestelako jarduera osagarriak.

Gure ustez, ez dago behar bezala bereizita zein diren benetan mantenu estrukturaleko gastuak, eta zein diren bestelako jardueri edo erabaki propioei lotutakoak.

Horrek zalantzak sortzen ditu aurkezten den defizitaren benetako izaerari buruz, izan ere, gastu guztiak ezin dira automatikoki defizit gisa ulertu.

Zentzu horretan, uste dugu beharrezkoa dela sakonago aztertzea gastu-partiden osaera. Izan ere, aurkeztutako datuen arabera, badira elementu esanguratsuak zalantzak sortzen dituztenak:

- Testuliburuaren kudeaketan 131.000 eurotik gorako sarrerak eta 94.000 euro inguruko gastuak ageri dira, hau da, emaitza positiboa sortzen duen jarduera
- Komunikazio eta publizitate gastuak 40.000 euro ingurukoak dira
- Elkarre-kuota eta ekarpenak 48.000 eurotik gorakoak dira
- Informatika eta digitalizazio gastuak 180.000 eurotik gorakoak

Horrek planteatzen du ea gastu horiek guztiak benetan funtzionamendu oinarritzkoari dagozkion, ala neurri batean erabaki propio edo jarduera osagarrien ondorio diren.

Era berean, planteatzen da ea diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak behar bezala integratzen diren defizitaren kalkuluan, eta ea horrek ez duen emaitza desitxuratzen.

Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela kontu-hartzaitzak balorazio tekniko zehatzago bat egitea, bereziki egiaztatzeko ea:

- gastu guztiak beharrezkoak diren,
- haien sailkapena egokia den,
- eta aurkeztutako defizitak benetako funtzionamendu-beharra islatzen duen ala ez.

Bestalde, ez dugu ikusi udalerriko beste hezkuntza zentro publikoekin egiten den konparazio argirik, eta hori ere garrantzitsua da udal baliabideen banaketa orekatua bermatzeko.

Horren guztiaren ondorioz, uste dugu espediente honek oraindik badituela argitu gabeko elementu garrantzitsuak, batez ere finantzaketaren izaerari, gastuen sailkapenari eta defizitaren justifikazioari dagokionez.

Horregatik, eta erabaki sendo bat hartzeko behar den ziurtasun maila ez dugulako ikusten, gure taldea abstenitu egingo da.”

Alkateak hitza hartzen du, eta gaia ez dela dirulaguntza berri bat baizik eta aurreko urteko dirulaguntzaren zuriaketaren inguruan dela azpimarratu du. Gogorarazi du dirulaguntza hau iaz aho batez onartua izan zela. Horretaz gain, kontuhartzailearen txostenean erreflexatuak daudela zuriaketari dagozkion kontzeptu guztiak, eta hauek bat datozela aurkeztutako zuriaketarekin. Horretaz gain, emandako dirulaguntza eta beraiek justifikatutako gastuen arteko defizita ziurtatu direla dio Alkateak.

Bestalde, eabazpen proposamenean dauden kontuak irakurri ditu. Konponketak eta lan txikiak: 129.644,48 euro. Mantenua igogailua, berogailua: 5.121,45 euro. Pellet, gasa, erregaiak: 19.348,86 euro. Argindarra: 21.347,85 euro. Garbiketa: 280.000 euro. Horretaz gain, Publizitatetik edo dena delako kontzeptutatik jasotako diru sarreren inguruan informazio zehatza txostenean jasotzen direla argitu du eta gainera azpimarratu du aurkeztutakoarekin defizita justifikatua geratu dela eta zehazki udalak defizit hori estaltzeko ematen duela diru publikoa.

Honekin bat, Alkateak azaldu du kontu-hartzaileak egindako txostenean zehazten dela defizit horren kopurua, zehazki, 11.616,46€-koa, beraz, ez dagoela gainfinantzaketarik. Legeak hori egiaztatzea eskatzen duela dio, eta hori dela egin dena adierazi du Alkateak.

Beraz, dirulaguntza zertarako erabilia izan den eta erabilera zuzena eman zaiola txostenean argitasunez jaso dela azaldu du Alkateak. Bozketa hasi aurretik, Oihana Irastorza Gonzalez eta Garazi Urdampilleta Astibia, gaiarekin duten harremanarengatik aretoa uzten dute. Ondoren, bozkatu egiten dute.

Idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenen baitan eta Herritarrak batzordeak 2026eko martxoaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Udala eta Hautzaro Ikastolaren arteko hitzarmena: 2025eko dirulaguntzaren zuriaketa onartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	10	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

-XI-

2026 URTERAKO OIARTZUNGO UDALA ETA HAURTZARO IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENA ETA DIRULAGUNTZAREN ONARPENA

Ikusirik Haurtzaro ikastola kooperatibak egindako eskaera eta erantsitako dokumentazioa, udalarekin izenpetzea proposatzen duen xede den dirulaguntza ordainduko lituzkeen kontzeptuak eta kopuruak zehazteaz gain, zentro kontzertatua izateagatik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak egingo dion ekarpenaren xehetasunak ere jasotzen dituela.

Ikusirik udalerriek hezkuntzaren arloan dituzten eskumenei buruzkoa, eta itunpeko ikastolek legez finantzatzeko duten aukerari buruzko txosten juridikoa eta jasotzen duen ondorioa:

“Ikastetxe pribatuen finantzaketa borondatezkoa eta Eusko Jaurlaritzaren finantzaketaren osagarria da, eta muga nagusi eta orokor hauek ditu:

- a) Bikoiztasunaren debekua, itunaren bidez finantzatutako gastu berberak udalak ez finantzatzeko moduan. Kasu horretan, udalerriak hezkuntza-itunen araubideak estaltzen ez dituen funtzionamendugastuen defizitagatik bakarrik finantzatu ahal izango luke.
- b) Diruz lagundutako erakundeen gain-finantzaketa debekatzea. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak ezartzen duenez, diru-laguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.
- c) Udalerriaren aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna bermatzea”.

Ikusirik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2020ko ekitaldiari zegokion Haurtzaro ikastola koop.ren hitzarmena eta dirulaguntza aztertu zuela, udalaren kontuen fiskalizazioa egin zuenean, eta, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2023ko ekainaren 29ko bilkuran behin betikoz onartutako Oiarzungo Udalaren 2020ko ekitaldirako fiskalizazio txostenetik ondoriozta daitekeen bezala (GAO 209 zk., 2023ko urriaren 30ekoan argitaratua), ez zuen hitzarmen eta dirulaguntzaren legezkontrakotasunik adierazi. Iritzietan, besteak beste hitzarmen eta dirulaguntza honi dagokionez, honakoa besterik ez zuen jaso:

“Guztira 470.270 euroren 2 dirulaguntza izendunen justifikazioan, nominen eta gizarte-aseguruen fakturarekin edo dokumentazioarekin justifikatutako gastuak udalaren laguntza baino handiagoak badira ere, ez dira zehaztu eskuratutako diru-sarrera edo dirulaguntza gehigarri horiek. Justifikazio-kontuetan nahitaezkoa da jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztiak zerrendatzea.”

Kontuan izanik, ordutik dirulaguntzaren zuriketetan laguntza bikoitza eta gain-finantzazioa ekidite aldera honako aspektu hauek egiaztatu arazi direla:

- udalaren dirulaguntza Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin dagoen itunaren ondorioz jasotako dirulaguntzaren ondorio desberdinetarako erabili beharko da, zuriketan justifikatu beharko dena; eta, era berean,
- udalaren laguntzaren kopurua dagokion moduan justifikatzeaz gain, justifikazio-kontuetan jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztiak zerrendatu beharko dira.

Kontuan izanik, dirulaguntzaren legezketasunaren inguruan, kanpoko aholkulari baten txostena eman dela, udalak hezkuntza arloan dituzten eskumenen eta kontzertatutako ikastolen alde eman dezaketen dirulaguntzen ingurukoa. Bertan, Jaurlaritzak hezkuntzaren jardun hori diruz laguntzen duen heinean bikoiztasunik egon litekeen aztertu da eta udalak, zenbait arloetan duen sustapen eskumena erabiliz, funtzionamendu gastuen defizita finantzatu dezakeela ondorioztatzen da, beti ere hezkuntza saileko kontzertuak estaltzen ez duen kopuruetan.

Txosten horren osagarri, udal idazkariak bere txostena ere eman du honakoa ondorioztatuz, udalak itunpeko zentroi dirulaguntza eman ahal izango diela Jaurlaritzak emandako dirulaguntza gainditzen duten gastuak estaltzera bideratzen bada (defizita), beti ere entitatearen guztizko gastuak guztizko dirusarrerak gainditzen badituzte eta kontzeptu bakoitzeko Jaurlaritzaren dirulaguntzak uzten duen defizitarengatik.

Kontuan izanik ikastolak dirulaguntzaren truke hartzen dituen konpromisoak kultura sailak idatzitako hitzarmenean jaso direla. Hala nola, herriko kultura eta euskararen sustapenarekin zerikusirik duten ekitaldi eta jardunetan parte aktiboa hartzeaz gain, honako konpromisoak hartu dituela:

- Haurtzaro Ikastolak, bere instalazioak doan uzteko konpromisoa hartu du eta baita euskara eta euskal kultura sustatzeko lanean jarraitzeko eta herrian sortzen diren ekimenei babesa eta laguntza emateko.
- Zentzu horretan, 2025ean udalak bereganatutako musika-eskola zerbitzuari aurre egiteko, Haurtzarok bere instalazioak eskaini ditu eta, gauzak horrela, udal musika-eskolaren 2026ko lehen ikasturtea Haurtzaro Ikastolaren instalazioetan emango da.
- Aurrerantzean ere, nahiz eta udalak musika-eskolarentzat egoitza berri bat egiteko asmoa izan, eguerdiko ikastaroentzako gelak, ikasleak desplazatzen ibili ez daitezen, Ikastolaren geletan bertan emango dira.
- Horrezaz gain, Ikastolaren gelak eskola ordutegitik at, udalak bultzatutako ekimen eta jardunetara ere bideratu ahal izateko akordioa lortu da. Zehazki, Ikastolak 12 gela jarriko ditu udalaren esku, udalak, edo elkarlanean ikastetxeekin, antolaturiko eskolaz kanpoko jardunarentzat.
- Jardun edo ekintza horien artean Oiartzungo musika taldeen entseguak egongo dira, beti ere udalak jarritako ordutegi eta gainerako baldintzetan eta Ikastolaren eskola ordutegitik kanpo eta Ikastolaren egunerokotasunean eragin gabe.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkariaren txostena, kultura teknikariaren Memoria eta kontuhartzailearen txostenaren baitan eta Herritarrak batzordeak 2026eko martxoaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehenengoa.- Zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea, HAURTZARO Ikastola S. Koop. erakundearen funtzionamendu gastuetarako udal aurrekontuko 1 0312.481.323.00.02 eta 1 0312.481.324.00.02 (AD-647-2026 eta AD-646-2026) partidei egotzita, adierazitako zenbatekoetan: 412.543,86 €.

Bigarrena.- Dirulaguntza dagokion hitzarmenean formalizatzea, dirulaguntza aplikatzeko emakidadunak dituen betebeharrak eta konpromisoak zehaztuz eta justifikatuz.

Kontuan hartu behar da dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena emakidaren oinarri arautzailea izango dela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren ondorioetarako.

Hirugarrena.- Interesdunei jakinaraztea dirulaguntza eman zaiela, eta jakinaraztea dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea 2027ko urtarrilaren 31ean amaitzen dela.

Laugarrena.- Emakidari buruzko informazioa ematea Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Janire Mitxelena EAJ/PNV partiduko zinegotziak hitzar hartzen du, ondorengoa adieraziz.

“Lehenik eta behin, hitzarmen honen garrantzia azpimarratu nahi dugu, izan ere, udalaren eta Haurtzaro Ikastolaren arteko lankidetzara arautzen duen tresna nagusia da.

Hala ere, eta hitzarmenaren edukia aztertuta, uste dugu badirela hobetu beharreko alderdi batzuk, bereziki finantzaketaren oinarriari eta egiturari dagokionez.

Izan ere, hitzarmenak berak jasotzen du udalaren dirulaguntza defizita estaltzera bideratzen dela, eta, aldi berean, espedientearen bertan ezartzen da finantzaketa hori osagarria izan behar dela, hau da, Eusko Jaurlaritzak estaltzen ez dituen gastuetara mugatua.

Hala ere, gure ustez, hitzarmenak ez du behar bezala zehazten nola bermatzen den baldintza hori praktikan, ezta nola egiaztatzen den udalaren ekarpena benetan osagarria dela eta ez dela beste finantzaketa publiko batekin gainjartzen.

Bestalde, hitzarmenak zehazten dituen gastu kontzeptuak —mantenua, garbiketa, hornidurak edo langileen kostuak— berez funtzionamendu arruntari lotutakoak dira, eta horrek are gehiago indartzen du beharrezkoa dela argitasun handiagoa izatea finantzaketaren egiturari dagokionez.

Gainera, uste dugu hitzarmen honek ez duela jasotzen dirulaguntza zehazteko irizpide objektibo eta gardenik.

Gure ustez, etorkizunera begira, komenigarria litzateke halako hitzarmenetan irizpide argiagoak ezartzea, hala nola jardueraren dimentsioa, erabiltzaile edo hartzaileen kopurua, erabilera maila edo udalerrian duen eraginaren araberrakoak.

Horrek lotura handiagoa emango lioke ematen den laguntzari eta benetako jardueraren dimentsioari.

Horrek lagunduko luke diru publikoaren banaketa bidezkoagoa eta gardenagoa izaten, eta erabakiak oinarri objektiboagoetan hartzen.

Era berean, aurreko puntuan agerian geratu diren zalantzak kontuan hartuta, uste dugu beharrezkoa dela finantzaketaren oinarria zehaztasun handiagoz definitzea hitzarmen berri bat onartu aurretik.

Horren guztiaren ondorioz, gure ustez hitzarmen honek berme handiagoak behar ditu, eta gaur gaurkoz ez dugu behar besteko ziurtasunik ikusten. Horregatik, gure taldea abstenitu egingo da.”

Alkateak hitza hartzen du, eta beraiek ondoren azaldutakoan oinarrituta, aldeko botua emango dutela jakinarazi du.

“Oiartzungo Udalak konpromiso sendoa du herriko hezkuntza sistema eta komunitatearekin. Arduraz jokatzeko dugu, erantzukizun instituzionalarekin eta lanerako borondate eta konpromisoz ari gara herriko hezkuntza proiektuak laguntzen eta kudeatzen.

Udalak legegintzaldi honetan ia 3 milioi euroko ekarpenak egin ditu. Ekarpene horren herena lege zehaztutako derrigorrezkoa da eta gainerako 2 herenek erakusten dute udal honen hezkuntza komunitatearekin duen konpromisoa. Diruaz gain, Elizalde ikastetxea guztiz eraberritzeko aurreproiektua garatu eta Europako dirulaguntzetara ere aurkeztu genuen. Beste behin ere, eskumenak eskumen, hezkuntza komunitateekiko dugun konpromisoa erakutsiz. Hezkuntza ez formalean egiten diren ekarpen eta lanak ere azpimarragarriak dira (Oinherriko kide izatea, Abaraxka doako ludoteka zerbitzua, Gazteentzako topagunea, udako udaleku irekiak...).

Oiartzungo Udalak legeak ematen dizkion aukera guztiak baliatzen ditu herriko hezkuntza sistema laguntzeko. Batetik, Euskadiko Toki Erakundearen 2/2016 legeari jarraiki, udalerriek badituzte hezkuntza esparruko kompetenziak. Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 17/2023 Hezkuntza Legeak adierazten du udalerriek eta udaletxeek paper garrantzitsua jokatzeko dutela euskal hezkuntza

sisteman, ikastetxeengandik gertuen dauden erakunde publikoak izaki. Azpimarratzen dut azken lege hau legealdi honen hasieran onartutakoa dela.

Ulertuta hezkuntza ez dela ikastetxeko lau hormen barruan gertatzen den hori bakarrik, garrantzitsua da hezkuntza komunitateek herriarekin harremana izatea, ikastetxeetan dauden herritar gazteak etorkizuneko heldu konprometitu eta eraikitzaileak izan daitezen.

Zentzu horretan, azpimarra jarri behar genuke:

- Haurtzaro Euskal Herriko gainontzeko ikastolekin batera euskal herriko eskola propioaren bidea urratzeko sortu zen eta horretan jarraitzen du.
- Haurtzaro ikastola irabazi asmorik gabeko Herri Onurako ikastetxea da, Eusko Jaurlaritzak hala onartuta. Eta ondorioz, ikastola desagertuko balitz, bere ondarea Oiartzungo Udalaren esku geratuko litzateke eta lortutako irabaziak hezkuntzan berrinbertituko lirateke.
- Haurtzaro Ikastola kooperatiba bat da, eta hitzarmen honi esker, udalak kudeaketan parte hartzeko eskubidea du, besteak beste, kontseilu errektorean parte hartzeko udal ordezkaria pleno honetan izendatuta daukagu.
- Udalak Haurtzaro Ikastolari egiten dion ekarpenak hezkuntza itunen araubideak estaltzen ez dituen funtzionamendu gastuen defizitari aurre egitea du xede bakar. Ikastolaren oinarriko finantzazioa aldatuko balitz, udal akordioa alda daiteke.
- Kultura teknikariak bere txostenean jasota daukan bezala, Haurtzaro Ikastola herriko bizitza publikoko eragile aktiboa dela. Besteak beste, bere komunitateak Oiartzungo ehunka familia batzen ditu eta kultur zein hezkuntza ekimenetan parte hartze aktiboa izaten du beti.”

Azalpenak amaitu ondoren eta bozketa hasi aurretik, Oihana Irastorza Gonzalez eta Garazi Urdampilleta Astibia, gaiarekin duten harremanarengatik aretoa uzten dute. Ondoren, bozkatu egiten dute.

Idazkariaren txostena, kultura teknikariaren Memoria eta kontuhartzailearen txostenaren baitan eta Herritarrak batzordeak 2026eko martxoaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du 2026 urterako Oiartzungo Udala eta Haurtzaro ikastolaren arteko hitzarmena eta dirulaguntza.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	10	EH Bildu,
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

-VII-

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK) ETA PROTOKOLO GASTUEN, BERRI EMATEA.

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2026eko otsailaren 21etik martxoaren 18ra arte.

Zk. 2026/384tik 2026/564ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2026ko martxoaren 10ean eta 24ean, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2026ko otsaila gastuak: Ez da gasturik egon.

-VIII-

ESKARI-GALDERAK

Janire Mitxelena EAJ/PNV partiduko zinegotziak hitzar hartzen du, hurrengo eskari galdera eginez.

“Martxoan gaude jada, eta oraindik ez dago argi zein izango den Urmendiren etorkizuna. Gai honen inguruan, duela urtebete gure taldeak mozio bat ekarri zuen Pleno honetara, eta gaur egun oraindik ez dugu erantzun argirik jaso.

Bien bitartean, proposamen bat Plenoan onartu da, otsailaren 27an Hezkuntza Sailarekin bilera egin da, martxoaren 9an proposamena erregistratu da, eta martxoaren 10ean parlamentariak eta Hezkuntza Batzordea Urmendin izan dira.

Testuinguru honetan, jakin nahi genuke zer erantzun jaso den eta, proposamena aurrera eramatea posible ez bada, zein erabaki hartuko duen udal gobernuak.

Era berean, bi urteko gelaren inguruan ere argitasuna behar da: aurreikusten al duzue eskaera behar bezala izapidetzea datorren ikasturterako? Guretzat kezagarria da Urmendiren etorkizuna, kontuan hartuta zerbitzu hau funtsezkoa dela familientzat, eta, gainera, langileen artean ere ziurgabetasuna eta kezka nabariak direlako. Zein da, beraz, 2026-2027 ikasturterako duzuen plangintza?”

Alkateak egindako galderari erantzunez, azaltzen du ez dugula Hezkuntzaren erantzunik jaso eta horregatik eskaera berri bat egingo dela jakinarazi du. Besteak beste, eskaera irakurtzen du:

“ 2026ko otsailaren 25eko Oiartzungo Udaleko osoko batzarrean Hezkuntza Sailari proposatu zitzaion Haurreskolak Partzuergoa Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan sartzeko aukera aztertu zezala.

Otsailaren 27an aurrez aurreko bilera egin zen Haurreskolak Partzuergoko arduradunekin Lakuan eskaera arrazoitzeko eta bileran bertan proposamen idatzia zuzenean eskura eman zitzaien. Hilabete honetan Hezkuntza Sailaren partetik ez da proposamen honi buruzko kontsulta edo erantzunik jaso.

Ondorioz, erantzukizun instituzionaletik, martxoaren 25eko osoko bilkura honetan, jakinarazten da Hezkuntza Sailari eskatzen zaiola 10 laneguneko epean Oiartzungo Udalak egindako proposamena ontzat ematen ote duen jakinarazteko.”

Janire Mitxelenak galdetzen du, Hezkuntza sailak Udalak egindako proposamenari ezezkoa ematen badio ea zer aurreikusten duen udal gobernuak.

Alkateak hori aurreko Udaltzain azaldu zuela erantzuten dio dena den, behin erantzuna jasota eta horren baitan hartu beharreko erabakiak hartuko dituztela eta lanean jarri beharko dutela esan du.



OIARTZUNGO
UDALA

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:50ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Si Alkatea



SI



OIARTZUNGO
UDALA

Sin. Idazkaria



SI



OIARTZUNGO
UDALA



OIARTZUNGO
UDALA

- I. ERANSKINA
ITELAZPI-REKIN LANKIDETZA HITZARMENA

LANKIDETZA HITZARMENA
KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK EMATEKO
ZARIAKO ZENTROAREN LAGAPENAREN ETA ERAIKITZEZ BITARTEZ

ACUERDO DE COLABORACIÓN PARA LA PRESTACIÓN
DE SERVICIOS DE TELECOMUNICACIONES
MEDIANTE LA CESIÓN Y CONSTRUCCION DEL NUEVO CENTRO DE ZARIA

Zamudion, sinadura elektronikaren datan	En Zamudio, a la fecha de la firma electrónica
BILDURIK	REUNIDOS
ALDE BATETIK, JOANA MENDIBURU GARAIAR, adinez nagusia, dokumentu honen ondorioetarako helbidea Done Eztebe plaza 1, 20.180 PK, OIARTZUN (Gipuzkoa) duena eta <u>X3747244S</u> Nortasun Agiri Nazionala duena, ekitaldi honetan OIARTZUNGO UDALaren (aurrerantzean, UDALA) ordezkari gisa diharduena (IFK: P-2006800-C), udalerrri horretako alkate gisa, 2023ko ekainaren 17ko bilkuran Udalbatzak emandako baimenarekin eta aginduarekin bat etorriz.	DE UNA PARTE, Dña. JOANA MENDIBURU GARAIAR, mayor de edad, con domicilio a efectos del presente documento en Done Eztebe plaza, 1, CP: 20.180, OIARTZUN (Gipuzkoa), y provista del Documento Nacional de Identidad <u>X3747244S</u> , quien actúa en este acto en representación del AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN (en adelante el AYUNTAMIENTO), con CIF: P-2006800-C, en su calidad de alcaldesa del citado municipio, según la autorización y mandato que le fue conferido por el Pleno del ayuntamiento en acuerdo adoptado en sesión de fecha 17 de junio del 2023.
Eta bestetik, XABIER ZUBIAUR AGIRRE jauna, adinez nagusia, akordio honen ondorioetarako helbidea Bizkaiko Teknologi Parkean duena (101 eraikina, 48170 PK, Zamudio, BIZKAIA) eta 14.608.095-J NAN zenbakia duena, ITELAZPI SAREN izenean eta haren ordezkari gisa (aurrerantzean, ITELAZPI), A-95282216 IFK duena, Zuzendari Nagusia gisa, eta ahalmen egiaztatua duena Euskal Autonomia Erkidegoko Elkargoko Andrés María Urrutia Badiola notarioaren aurrean 2023ko uztailaren 11an egiletsitako eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 2190). Eskritura hori Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago (54. inskripzioa, BI-38047 orria, 214. liburua, 0, Tomo 5851)	Y DE OTRA D. XABIER ZUBIAUR AGIRRE, mayor de edad, con domicilio a efectos del presente Acuerdo en Parque Tecnológico de Bizkaia, Edificio 101, CP 48170, Zamudio (BIZKAIA), y provisto de DNI nº 14.608.095-J, en nombre y representación de ITELAZPI, S.A. (en adelante ITELAZPI), con CIF A-95282216, en su calidad de Director General de la sociedad, con poder acreditado mediante escritura otorgada ante el Notario del Colegio del País Vasco D. Andrés María Urrutia Badiola, de fecha 11 de julio de 2023 y con el número 2190 de su protocolo, inscrita en el Registro Mercantil de Bizkaia, Inscripción 54ª, Hoja BI-38047, Folio 214, Libro 0, Tomo 5851.
Parte hartzen duten alderdi guztiek aitortzen diote elkarri agiri hau emateko legezko gaitasun nahikoa, eta, horretarako, honako hau	Todas Las partes en la calidad que intervienen se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente en Derecho para otorgar el presente documento y a tal efecto
ADIERAZTEN DUTE	EXPONEN
I.- ITELAZPI sozietate publikoa da, eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailari atxikita dago. Irailaren 23ko 215/2003 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak (aurrerantzean, EAE) baimendu zuen sozietate hori sortzea, eta Eusko Jaurlaritzaren	I.- Que ITELAZPI, es la Sociedad pública, adscrita al Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, cuya creación fue autorizada por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en lo sucesivo CAE) en virtud del Decreto 215/2003, de 23 de septiembre, encomendando



OIARTZUNGO
UDALA

<p>Komunikazio Sarea osatzen zuten zentro errepikatzaileak kudeatzeko eta ustiatzeko ardura eman zion.</p>	<p>a ésta la gestión y explotación de los centros repetidores que integraban la Red de Comunicaciones del Gobierno Vasco.</p>
<p>II.- Oiarzungo Udala ZARIA mendiaren inguruko telekomunikazio-zentro baten jabea dela, eta hobetu egin nahi dituela segurtasunari eta osasunari buruzko araudien, araudi elektrikoaren eta aire-segurtasunari buruzko araudien alderdiak</p>	<p>II.- Que, el ayuntamiento de Oiarzun es propietario de un centro de telecomunicaciones en el entorno del Monte ZARIA, que desea mejorar en los aspectos de normativas de seguridad y salud, normativas eléctricas y de seguridad aérea.</p>
<p>III.- ITELAZPIk komenigarritzat jotzen du zentro hori EAEko komunikazio-sarean sartzea, instalazioak hobetzea ahalbidetuko duten beharrezko inbertsioak berme egokiekin gauzatzeko, besteak beste, egungo telekomunikazio-dorrea eta etxola ordezkatzeko, zentrotik bertatik emandako zerbitzuak segurtasunez hornitzeko, hain zuzen ere OIARTZUN udalerraren hartzaile nagusia baita.</p>	<p>III.- Que ITELAZPI considera conveniente integrar el referido centro en la Red de comunicaciones de la CAE para ejecutar así, con las garantías pertinentes, las inversiones precisas que posibiliten la mejora de instalaciones, entre otras la sustitución de la Torre y caseta actual de telecomunicaciones, para dotar de seguridad los servicios prestados desde el propio centro que, precisamente tiene como destinatario principal al municipio de OIARTZUN.</p>
<p>IV.- Horretarako, Udal Akordioa dago, 2026/01/08ko irteera-datari buruzkoa, Obra Lizentzia ematekoa, alde aurretik lankidetzahitzarmen hau sinatzearen baldintzapean.</p>	<p>IV.- Que, para ello, existe Acuerdo municipal de fecha de salida 08/01/2026, de concesión de Licencia de Obras condicionada a la firma previa del presente convenio de colaboración.</p>
<p>V.- ITELAZPIk eta OIARTZUNeko Udalak lankidetzahitzarmen hau sinatu nahi dute, ITELAZPIri gaur egungo azpiegitura eta instalazio teknikoak (etxolak eta dorrea) lagatzeko eta ukitutako lurrak okupatzeko (benetan okupatutako esparrua edo espazioa eta sarbidea), eraisteko eta, ondoren, eraikuntza berria egiteko</p>	<p>V.- Que ITELAZPI y el Ayuntamiento de OIARTZUN desean suscribir el presente convenio de colaboración, para la cesión a favor de ITELAZPI, de las infraestructuras e instalaciones técnicas actuales (casetas y torre) y la ocupación de los terrenos afectados por el mismo (recinto o espacio efectivamente ocupado y acceso al mismo), para su derribo y posterior nueva construcción.</p>
<p>Azaldutakoarekin bat etorritik, aldeek lankidetzahitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauen arabera:</p>	<p>De conformidad con lo expuesto, las partes acuerdan suscribir el presente acuerdo de Colaboración, con sujeción a las siguientes:</p>
<p style="text-align: center;">KLAUSULAK</p> <p style="text-align: center;">I. KLAUSULA OROKORRAK</p> <p>Lehenena.- Lankidetzahitzarmenaren Irismena.</p>	<p style="text-align: center;">CLAUSULAS</p> <p style="text-align: center;">I. CLAUSULAS GENERALES</p> <p>Primera.- Objeto del Acuerdo de Colaboración.</p>
<p>1.1.- Aldeek akordio hau sinatzea erabaki dute, komunikazio-zerbitzuak ematea erraztuko duen lankidetzahitzarmen bat ezartzea helburu duena, zehazki, TETRA zerbitzuen estaldura hobetzea (112 larrialdiak), eguraldiaren iragarpena, babes zibila, DYArekin eta Gurutze Gorriaren estaldura, udal-komunikazioak, eta zerbitzu horiek</p>	<p>1.1.- Las partes acuerdan suscribir el presente Acuerdo que tiene por objeto establecer un marco de colaboración que facilite la prestación de servicios de comunicaciones, en concreto mejora de cobertura de servicios TETRA (emergencias 112), predicción meteorológica, protección civil, cobertura de DYA y Cruz Roja,</p>



<p>hobetzea, bai eta erabilitako inguruneke ingurumen-balioak babestea ere.</p>	<p>comunicaciones municipales, y redunde en la mejora de dichos servicios, así como en la salvaguarda de los valores ambientales del entorno utilizado.</p>
<p>Horretarako, alderdiek esparru-araubide bat adostu dute, ITELAZPI sozietate publikoak ZARIAko komunikazio-zentroaren kudeaketa bere gain hartzeko aplikazio-oinarriak ezartzen dituen</p>	<p>A tal efecto, las partes consensuan un régimen marco que establece las bases de aplicación para la asunción de la gestión por parte de la sociedad pública ITELAZPI, del centro de comunicaciones de ZARIA.</p>
<p>Labur esanda, lankidetzak horrek honako jarduerak hauek dakartza berekin:</p> <p>a) Komunikazio-zentroaren eraginpeko lursailen erabilgarritasuna lortzea, hau da, benetan okupatutako azalera (7 x 4 = 28 m²) (emondako obra baimena arabera) eta sarbideak eragindako lursailak.</p> <p>b) Adierazitako lursailak ITELAZPIren esku jartzea, ZARIAko komunikazio-zentroak eragindako lursailen erabilera, aprobetxamendua eta bide-zorra baimenduta.</p> <p>c) ITELAZPIrentzako komunikazio-zentroa kudeatzea eta mantentzea, dokumentu honetan jasotako estipulazioen arabera, egungo etxola eta dorrea eraitsi ondoren.</p> <p>d) Hala badagokio, udalerrian ITELAZPI sozietatearen xedearen parte diren edo kudeatzeko agindu zaizkion telekomunikazio-zerbitzu erantsiak ezartzea.</p>	<p>De manera sucinta, dicha colaboración implica las siguientes actuaciones:</p> <p>a) Obtención de la disponibilidad de la ocupación los terrenos afectos por el nuevo centro de comunicaciones, que implica la superficie efectivamente ocupada (7 x 4 = 28 m²) (según licencia de obras concedida) y los terrenos afectados por el acceso.</p> <p>b) La puesta a disposición de ITELAZPI de los terrenos indicados, autorizando su uso y aprovechamiento, así como la servidumbre de paso, de los terrenos afectos por el centro de comunicaciones del Monte ZARIA.</p> <p>c) La gestión y el mantenimiento del nuevo centro de comunicaciones a construir por ITELAZPI, de acuerdo con las estipulaciones contenidas en el presente documento, previa demolición de las casetas y torre actuales.</p> <p>d) En su caso, la implantación futura para el municipio de los servicios de telecomunicaciones añadidos que constituyan parte del objeto de la sociedad ITELAZPI o cuya gestión le haya sido encomendada.</p>
<p>1.2.- Beraz, alde aurretik adierazitakoaren arabera, aurreko atalean ezarritako helburua betetzeko, katastroko erreferentzia duen 28 m²-ko lursaila erabiliko da: 18 – Oartzungo udalerriko 35 lursaila, udalarena, eta Itelazpi dorre eta etxola berria eraikiko du Oartzungo Udalak emandako obra-lizentziaren baldintzapean</p>	<p>1.2.- Por tanto, de acuerdo con lo indicado con antelación, para el cumplimiento del objeto establecido en el apartado anterior, se empleará el terreno de 28 m² identificado con la referencia catastral polígono: 18 – Parcela: 35 del término municipal de OIARTZUN, perteneciente al ayuntamiento, y se construirá por parte de Itelazpi nueva torre y caseta bajo las condiciones de la licencia de obra otorgada por el ayuntamiento de Oartzun.</p>
<p>Bigarrena.- Komunikazio zentroaren xedea.</p> <p>1.1.-ZARIAko komunikazio-zentroa ITELAZPIri</p>	<p>Segunda.- Destino del centro de comunicaciones.</p> <p>1.1.-El centro de comunicaciones de ZARIA</p>



<p>dagozkion edo dagozkion telekomunikazio-zerbitzuak emateko erabiliko da, Eusko Jaurlaritzaren edo EAeko Administrazio Orokorraren titulartasuneko telekomunikazio-azpiegiturak kudeatzen dituen sozietate gisa, besteak beste, irrati-seinaleak eta lurreko telebista digitala (LTD) garraiatzeko eta hedatzeko zerbitzuen euskarri-zerbitzua eta sozietateak esleituta izan ditzakeen telekomunikazio-zerbitzu gehigarriak, UDAL honi eta hirugarren pertsona fisiko edo juridikoei.</p> <p>1.2.- ZARIAko komunikazio-zentroak gaur egun zerbitzua ematen dien erakunde bereberri emango die zerbitzua; Babes Zibila, Gurutze Gorria, DYA, Iberdrola, Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaileak bai eta meteorologia edo ingurumen zerbitzuak ere, betiere irabazimorik gabe ematen badira.</p> <p>1.3.- Oiartzungo Udalak ZARIAko komunikazio-zentroaren azpiegiturak behar izanez gero bere zerbitzuak emateko, horiek lehentasuna izanen dute eta ez dute inongo kosterik izango udal erakundearentzat.</p> <p>1.4.- Telekomunikazio-enpresa pribatuei zerbitzu berriak eman nahi bazaizkie (lehendik dagoen azpiegituraren ezaugarriak aldatu gabe ere), Oiartzungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera egin beharko zaio alde aurretik, zerbitzua emango zaien erabiltzaileak eta zerbitzu horri lotutako prezioak adierazita. Hala badagokio, eskatutako erabilerarekiko proportzionala den kanon bat ezarri ahal izango da.</p> <p>1.5.- Handitze edo aldaketa oro, behar besteko aurrerapenaz eskatu beharko zaio Oiartzungo Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta ezin izango da egin baimena eman arte.</p>	<p>estará destinado a la prestación de servicios de telecomunicaciones que correspondan o pudieran corresponder a ITELAZPI, en calidad de sociedad gestora de las infraestructuras de telecomunicaciones titularidad del Gobierno Vasco, o de la Administración General de la CAE, entre ellos, el servicio soporte de los servicios de transporte y difusión de señales de radio y televisión digital terrestre (TDT), servicios TETRA, de predicción meteorológicos y otros servicios de telecomunicaciones añadidos que la sociedad pueda tener encomendados, para prestar a este AYUNTAMIENTO y a terceras personas, físicas o jurídicas.</p> <p>1.2.- El centro de comunicaciones de ZARIA dará servicio a las mismas entidades a las que actualmente presta servicio; Protección Civil, Cruz Roja, DYA, Iberdrola, bomberos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como servicios meteorológicos o medioambientales, siempre que se presten sin ánimo de lucro.</p> <p>1.3.- En el caso de que el Ayuntamiento de Oiartzun requiera infraestructuras del centro de comunicaciones de ZARIA para la prestación de sus servicios, éstas tendrán prioridad y no tendrán coste alguno para la entidad municipal.</p> <p>1.4.- La prestación de nuevos servicios a empresas privadas de telecomunicaciones, sin alterar las características de la infraestructura existente, requerirá la previa solicitud al Ayuntamiento de Oiartzun y a la Diputación Foral de Gipuzkoa, con indicación de los usuarios a los que se va a prestar el servicio y los precios asociados al mismo. En su caso, podrá establecerse un canon proporcional al uso solicitado.</p> <p>1.5.- Toda ampliación o modificación deberá solicitarse con la suficiente antelación al Ayuntamiento de Oiartzun y a la Diputación Foral de Gipuzkoa, no pudiendo llevarse a cabo hasta la autorización.</p>
<p>Hirugarrena.- Lankidetzak akordioaren indarraldi.</p> <p>1.1.- Lankidetzak-hitzarmen honek 10 urteko indarraldia izango du eta automatikoki berri ahal</p>	<p>Tercera.- Vigencia del acuerdo de Colaboración.</p> <p>1.1.- El presente Acuerdo de Colaboración tendrá vigencia de 10 años, renovables</p>



<p>izango da epe bererako, baldin eta alderdietako batek kontrako jakinarazpenik egiten ez badu eta komunikazio-instalazioak eta atxikitako lursaila eta sarbidea ITELAZPIren edo Administrazio Orokorreko edo haren mendeko beste edozein pertsona juridikoren xede diren zerbitzuak emateko erabiltzen badira, eta etorkizunean sozietatea ordeztzen badu.</p> <p>Beraz, EAEko Administrazio Orokorreko edo haren mendeko Administrazio Instituzionaleko ITELAZPI ez den beste edozein pertsona juridikok bere gain hartzen badu ZARIAren komunikazio-zentroa, sozietatearen lekuan subrogatuko da automatikoki, eta hitzarmen honen klausula guztiek indarrean jarraituko dute.</p> <p>1.2.- Era berean, komunikazio-zentroaren lagapenaren xederako erabiltzen ez bada, lagapena ondoriorik gabe geratuko da, eta eremua Udalari itzuliko zaio, bere ondasun eta akzesio guztiekin. Aitzitik, akordio hau indarrean egongo da ZARIA komunikazio-zentroa aipatutako helbururako erabiltzen den bitartean.</p>	<p>automáticamente por idéntico plazo de no mediar oposición de las partes, y las instalaciones de comunicaciones y el terreno y acceso afectos estén siendo utilizados para la prestación de los servicios que constituyan el objeto de ITELAZPI o de cualquier otra persona jurídica, perteneciente a la Administración General o institucional dependiente de ella que en el futuro pudiera sustituir a la sociedad.</p> <p>Por tanto, en el caso de que cualquier otra persona jurídica distinta a ITELAZPI, perteneciente a la Administración General de la CAE, o a la Administración Institucional dependiente de ella, se haga cargo del centro de comunicaciones de ZARIA, ésta se subrogará automáticamente en el lugar de la sociedad, continuando vigente en todas sus cláusulas el presente acuerdo.</p> <p>1.2.- Así mismo, en el supuesto de que el centro no fuera destinada al fin para el que se cede quedará sin efecto la cesión, revirtiendo en pleno uso el terreno al Ayuntamiento, con todas sus pertenencias y accesiones. Subsistirá por el contrario la vigencia del presente Acuerdo durante el tiempo en que el centro de comunicaciones de ZARIA sea destinado al fin mencionado con antelación.</p>
<p>Laugarrena.- Dokumentazio.</p> <p>Lankidetzak akordio honen zati banaezina honako dokumentu hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Lankidetzak hitzarmenaren kidego orokorra.	<p>Cuarta.- Documentación.</p> <p>Constituyen parte inseparable el presente Acuerdo de Colaboración los documentos que a continuación se enumeran:</p> <ul style="list-style-type: none">- Cuerpo general del Acuerdo de Colaboración.
<p>II. KLAUSULA BEREZIAK</p> <p>A) ZARIAKO KOMUNIKAZIO-ZENTROAK ERAGINDAKO LURRAK</p> <p>Bostgarrena.- Udalaren Betebeharrak.</p> <p>1.1.- Hitzarmen honen xedea den erakunde arteko lankidetzaren ondorioz, Udalak honako betebeharren kargu egingo da:</p> <p>Oiartzungo Udala da jabetza osoz eta mugarik gabe ZARIAko komunikazio-zentroak okupatzen duen 28 metro kuadroko azalera hartzen duen ondorengo lursailaren titularra: Landa Katastroko 18. poligonoko 35. lursaila.</p>	<p>II. CLAUSULAS PARTICULARES</p> <p>A) TERRENOS AFECTADOS POR EL CENTRO DE COMUNICACIONES DE ZARIA</p> <p>Quinta.- Obligaciones del Ayuntamiento.</p> <p>1.1.- Como consecuencia de la colaboración interinstitucional objeto del presente convenio, el Ayuntamiento se hará cargo de las siguientes obligaciones:</p> <p>El Ayuntamiento de Oiartzun es titular en plena propiedad e indefinidamente de la parcela 35 del polígono 18 del Catastro Rural que ocupa una superficie de 28 metros cuadrados del centro de comunicaciones de ZARIA.</p>



<p>Udalak ITELAZPIri bermatuko dio lankidetzahitzarmena indarrean dagoen bitartean zentroak okupatutako eremuaren eta bertara iristeko bidearen erabilgarritasuna.</p> <p>Halaber, Udalak berariaz baimena ematen du lehen deskribatutako lursaileraino doan bidetik ITELAZPIren enplegatuek eta ibilgailuak pasatzeko, baita horrek obrak, instalazioak eta zerbitzuak emateko kontratatzen dituen enpresetako pertsonak edo ibilgailuak ere pasatzeko, instalazioak eta telekomunikazio ekipamenduak mantentzeko berezko zereginetarako, eta soilik xede horretarako.</p> <p>Nolanahi ere, Udala izango da ITELAZPIk aurretiaz adierazitako eremuaren eta aprobetxamendu baketsuaren bermatzailea. Beraz, ITELAZPIri bermatuko dio hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean komunikazio-zentro berrira sartzeko bidea eta eremua benetan erabiliko dituela.</p> <p>Horregatik guztiatik, UDALA izango da aipatutako lursailen erreklamazioen inguruan aurrerantzean sor daitekeen edozein gorabehera konpontzearen erantzule bakarra eta ITELAZPI salbuetsiko du eta kalterik gabe mantenduko du horri lotutako zehapen, isun, erantzukizun eta erreklamazio judizial edo estrajudizial oren aurrean.</p>	<p>El Ayuntamiento garantizará a ITELAZPI la disponibilidad de la zona ocupada por el centro y del vial de acceso al mismo durante la vigencia del convenio de colaboración.</p> <p>Asimismo, el Ayuntamiento autoriza expresamente el paso de empleados y vehículos de ITELAZPI por el camino que conduce hasta la parcela antes descrita, así como de personas o vehículos de las empresas que éste contrate para la realización de obras, instalaciones y servicios, para las tareas propias del mantenimiento de las instalaciones y equipos de telecomunicaciones, y exclusivamente para este fin.</p> <p>En cualquier caso, el Ayuntamiento se erige como garante del pacífico uso y aprovechamiento por parte de ITELAZPI de los terrenos indicados con antelación, Por tanto, garantizará a ITELAZPI la utilización efectiva del terreno y camino de acceso al nuevo centro de comunicaciones durante la vigencia del presente acuerdo.</p> <p>Por todo ello, será el Ayuntamiento el responsable único de solventar cualquier incidencia que en adelante pudiera producirse relativa a posibles reclamaciones de los terrenos referenciados que pudieran presentar, y exonerará y mantendrá indemne a ITELAZPI frente a toda sanción, multa, responsabilidad de cualquier naturaleza y reclamación judicial o extrajudicial que se derive a este respecto.</p>
<p>Seigarrena.- ITELAZPIren Betebeharrak.</p> <p>1.1.- ITELAZPI, S.A.k aipatutako lurren erabilera- eta gozamen-eskubideen lagapena onartzen du, eta alderdien arteko Lankidetzak Akordio hau nahikoa titulu da lur horiek okupatzeko.</p> <p>1.2.- ITELAZPI, S.A.k behar den arreta guztia jarriko du lagatzen den zentroak hartzen duen esparrua zaintzeko eta mantentzeko, baita bertara hurbilen sartzeko ere, eta bere kontura eta bere kontura egingo ditu beharrezkotzat jotzen dituen egokitze-lanak.</p> <p>Zehazki, ITELAZPIk konpromisoa hartzen du bidea ibilgailuekin ibiltzea ahalbidetuko duten irisgarritasun-baldintza egokietan mantentzeko, baina betiere dagoen ingurune naturala errespetatuz.</p>	<p>Sexta.- Compromisos de ITELAZPI.</p> <p>ITELAZPI, S.A. acepta la cesión de los derechos de uso y disfrute sobre los terrenos referenciados, sirviendo este Acuerdo de Colaboración de título suficiente entre las Partes para la ocupación del mismo.</p> <p>ITELAZPI, S.A. pondrá toda la diligencia debida en el cuidado y mantenimiento del recinto ocupado por el centro objeto de cesión, así como del acceso más inmediato al mismo, realizando por su cuenta y a su cargo las tareas de acondicionamiento que estime precisas.</p> <p>En concreto, ITELAZPI se compromete a mantener el camino en las debidas condiciones de accesibilidad que permita el tránsito con vehículos pero siempre respetando el entorno natural en el que se encuentra.</p>



<p>1.3.- Okupazioak ez du bere ahalmenik ematen errepide, bide, pista edo bestelakoetako zortasun-obrak egiteko, eta, beraz, okupatzaileak obra horien beharra eskatu eta justifikatu beharko du. Kasu horretan, baimena lortu beharko du, baimena bidezkoa den eta nola gauzatu beharko den zehazteko. Salbuespen bera aplikatuko da mendiko iturburuak edo Administrazioaren jabetzak aurretik egindako obrak edo instalazioak oztopatzen edo erabilezin bihurtzen badira, horien izaera edo erabilera edozein izanda ere.</p>	<p>1.3.- La ocupación no faculta por sí solo para realizar obras de servidumbre de carreteras, caminos, pistas o de otro tipo por lo que el ocupante habrá de solicitar y justificar su necesidad. En tal caso deberá obtener la necesaria autorización que determinará la procedencia y forma de ejecutarla. Idéntica salvedad procederá si se entorpeciesen o se inutilizasen manantiales u obras e instalaciones realizadas con anterioridad por la propiedad del monte o la Administración, cualquiera que se la naturaleza o utilización.</p>
<p>Zazpigarrena.- Atxikitako lurraren salmenta.</p> <p>1.1.- ZARIAko komunikazio-zentroak eragindako lursaila salduz gero, UDALAK hitzarmen honen indarraldia errespetatu beharko du bere baldintzetan, eta arrazoi horrengatik ez da amaituko. Ondorioz, UDALAK bere gain hartzen du eskuratzailari horren berri emateko betebeharra, eta horrek nahitaz konpromisoa hartu beharko du hura errespetatzeko, haren lekuan subrogatuz.</p> <p>1.2.- Okupazioa ezin izango zaie hirugarrenei eskualdatu hartzaileak baldintza hauek ezagutzen eta onartzen dituela berariaz adierazi gabe eta alde zuzenetik eremuaren jabea den OIartzungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenik gabe.</p>	<p>Séptima.- Venta del terreno afecto.</p> <p>1.1.- En caso de venta del terreno afecto por el centro de comunicaciones de ZARIA, el AYUNTAMIENTO deberá respetar la vigencia del presente acuerdo en sus términos sin que se produzca su finalización por dicha causa. En consecuencia, el AYUNTAMIENTO asume la obligación de ponerlo en conocimiento del adquirente, el cual necesariamente deberá comprometerse a respetarlo, subrogándose en la posición de aquel.</p> <p>1.2.- La ocupación no podrá ser traspasada a terceros sin que el cesionario manifieste expresamente el conocimiento y aceptación del presente condicionado y sin el previo consentimiento tanto de la entidad propietaria como de la propia Diputación Foral de Gipuzkoa.</p>
<p>B) ZARIAKO TELEKOMUNIKAZIO ZENTROKO INSTALAZIO TEKNIKOAK</p> <p>Zortzigarrena.- Udalaren Betebeharrak.</p> <p>1.1.- Era berean, akordio honen xedea da ITELAZPIri lagatzea zentroa osatzen duten instalazio tekniko guztien titulartasuna, hau da, hormigoizko etxolak, egungo komunikazio-dorrea eta linea elektrikoa. Hori guztia, ITELAZPIk komunikazio-zentro berri bat eraitsi eta eraiki ahal izan dezan, ITELAZPIk diseinatutako telekomunikazio-sarean sar dadin, eta linea elektrikoan dagozkion hobekuntzak egin ditzan.</p>	<p>B) INSTALACIONES TÉCNICAS DEL CENTRO DE COMUNICACIONES DE ZARIA</p> <p>Octava.- Obligaciones del Ayuntamiento.</p> <p>1.1.- Igualmente, es objeto del presente Acuerdo, la cesión por parte del AYUNTAMIENTO a favor de ITELAZPI, de la titularidad del conjunto de las instalaciones técnicas que integran el centro, es decir, en su caso, casetas de hormigón, torre de comunicaciones actual, y línea eléctrica existente. Todo ello con el fin de que ITELAZPI pueda acometer el derribo y construcción de un nuevo centro de comunicaciones para que se integre en la Red de Telecomunicaciones diseñada por ITELAZPI, S.A, así como las</p>



<p>1.2.- Udalaren eta ITELAZPI-ren betebeharra da gaur egun bere dorrean eta etxoletan dauden operadoreak eta erakundeak identifikatzea, ITELAZPIko dorre eta etxola berrian egongo direla jakinarazteko.</p> <p>Erakunde aterpetu horiek beren gain hartuko dute, proportzionalki, beren kontsumo elektrikoa (beren ekipoek kontsumitutako kilowatten faktura), bai eta Eusko Jaurlaritzak Itelazpirentzat urtero Tarifetan onartzen dituen Dorreko lurzoruaren eta espazioaren okupazioagatiko tasak ere.</p> <p>1.3.- Laguntza eta sorospena ematea helburu duten eta irabazi-asmorik gabekotzat jotzen diren erakundeek (DYA errepideko laguntza, udal-agenteen eta udal-zerbitzuen komunikazioak, babes zibila, suhiltzaileak eta Gurutze Gorria, besteak beste) ez dute ordaindu beharko dorreko lurzoria eta espazioa okupatzeagatiko tarifa erabaki honen xedea da.</p>	<p>mejoras correspondientes en la línea eléctrica.</p> <p>1.2.- Es obligación del Ayuntamiento y ITELAZPI identificar a los operadores, y entidades albergadas actualmente en su torre y casetas para comunicarles que pasarán a estar albergados en la nueva Torre y caseta de Itelazpi</p> <p>Estas entidades albergadas, asumirán proporcionalmente su consumo eléctrico (factura de kilowattios consumidos por sus equipos) así como las tasas por ocupación de suelo y espacio en Torre que Gobierno Vasco apruebe anualmente para Itelazpi en sus Tarifas.</p> <p>1.3.- Aquellas entidades, incluido el ayuntamiento de Oiartzun, consideradas sin ánimo de lucro, cuya finalidad sea la prestación de ayuda y socorro (DYA ayuda en carretera, comunicaciones de agentes y servicios municipales, protección Civil, Bomberos, radioaficionados y Cruz Roja entre otras) estarán exentas de abonar la Tarifa por ocupación de suelo y espacio en torre.</p>
<p>Bederatzigarrena.- Itelazpiren betebeharrak. Zentroaren kudeaketa eta ustiapena.</p> <p>1.1.- Zentroa ITELAZPIk kudeatu eta ustiatuko du, telekomunikazioen arloan edo ZARIAren komunikazio-zentroarekin lotutako beste alderdi tekniko batzuetan erabakiak hartzeko ahalmena ITELAZPIk izango baitu. Nolanahi ere, UDALAK behar bezala informatuko du udalerrientzat interesgarriak izan daitezkeen gai guztiei buruz.</p> <p>1.2.- ITELAZPIk bere gain hartuko ditu etxola tekniko berria eraikitzea, telekomunikazio-dorre berria eraikitzea, hesiak hobetzea, bidea egokitzea eta linea elektrikoa hobetzea. Ez da aurreikusten lehendik dauden sarbideak irekitzea edo egokitzea. Ondorioz, sarbide horiek egungo egoeran erabiliko dira.</p> <p>1.3.- ITELAZPIk, halaber, bere gain hartuko ditu honako hauei lotutako gastu guztiak: etorkizuneko mantentze-lanak, etxola eta dorrea pintatzea, su-itzalgailuak, aire girotua, karraskarien pestizidak, garbiketak, belar-sastrakak garbitzea, bidea eta linea elektrikoa zaintzea, giltza- eta sarbide-kontrolako sistemak, estalkiak eta hezetasunak konpontzea, tximista</p>	<p>Novena.- Compromisos de ITELAZPI: Gestión y explotación del centro.</p> <p>1.1.- La gestión y explotación el centro corresponderá a ITELAZPI en tanto en cuanto que la capacidad decisoria en materia de telecomunicaciones o en otros aspectos técnicos relacionados con el centro de comunicaciones de ZARIA residirá en ITELAZPI, sin perjuicio de que el AYUNTAMIENTO sea informado debidamente sobre todas aquellas cuestiones que puedan resultar de interés para el municipio.</p> <p>1.2.- ITELAZPI asumirá la construcción de la nueva caseta técnica, la construcción de la nueva Torre de Telecomunicaciones, las mejoras en vallado, acondicionamiento de camino y mejoras en línea eléctrica. No se prevé la apertura o adecuación de los accesos existentes. En consecuencia, estos accesos se utilizarán en la situación actual.</p> <p>1.3.- ITELAZPI así mismo, asumirá todos los gastos vinculados a futuros mantenimientos, pintado de caseta y torre, extintores, aire acondicionado, plaguicidas de roedores, limpiezas, desbroces, conservación de camino y línea eléctrica, sistemas de llaves y control de acceso, reparación de cubiertas y humedades, sistema inhibidor de rayo, mantenimiento de</p>



<p>inhibitzeko sistema, dorrearen bizi-lerroaren mantentze-lanak, banaketa elektrikoko koadroa, perimetroko lur-piken eta iragazkien sistema, ateen eta hesien kontserbazioa, eta azpiegitura horri lotutako edozein elementu edo sistema osagarri..</p> <p>1.4.- ITELAZPIk, bai obra garaian eta baita ustiapenean ere, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu. 2023ko uztailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena.</p>	<p>línea de vida de torre, cuadro de distribución eléctrica, sistema de picas de tierra perimetrales y filtros, conservación de puertas y vallado, y cualquier elemento o sistema auxiliar vinculado a esta infraestructura.</p> <p>1.4.- ITELAZPI deberá cumplir las condiciones establecidas en la declaración de impacto ambiental, tanto durante la obra como durante su explotación. Resolución de 4 de julio de 2023, del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.</p>
<p>C) LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN AURREIKUSPENAK.</p> <p>Hamargarrena.- Enpresa-Jardueren koordinazioa.</p> <p>UDALAK ZARIAko komunikazio-zentroan ekipamendua edukiz gero, ITELAZPIrekin elkarlanean arituko da prebentzio-arloko ekintzak gauzatu ahal izateko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan eta hori garatzen duen 171/2004 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.</p> <p>Horretarako, ITELAZPIk enpresa-jardueren koordinazioari buruz prestatutako dokumentazioa beteko du, eta hala badagokio, bidaliko dio.</p>	<p>C) PREVISIONES EN MATERIA DE SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO.</p> <p>Décima.- Coordinación de Actividades Empresariales.</p> <p>En el caso de que el AYUNTAMIENTO albergue equipamiento en el centro de comunicaciones de ZARIA, colaborará con ITELAZPI para que puedan llevarse a cabo las correspondientes acciones en materia preventiva de acuerdo con lo establecido en el artículo 24 de la Ley de Prevención de Riesgos laborales y en el RD 171/2004 que lo desarrolla.</p> <p>A tal efecto dará cumplimiento a la documentación elaborada por ITELAZPI en materia de coordinación de actividades empresariales que le será remitida en su caso.</p>
<p>C) EBAZPEN ETA EZ-BETETZEAK.</p> <p>Hamaikagarrena.- Ebazpen eta ez-betetzeak.</p> <p>Akordio hau suntsiarazi ahal izango da bi alderdiak ados jarrita edo alderdietako batek eskatuta, bertan ezarritako baldintzak larriki eta behin eta berriz ez betetzeagatik.</p> <p>Eta ados daudela adierazteko, alderdiek lankidetzaz hitzarmen hau sinatzen dute, sinadura elektronikoaren tokian eta egunean, eta alderdi sinatzaile bakoitzak ale baten kopia izango du.</p>	<p>C) RESOLUCIÓN E INCUMPLIMIENTOS.</p> <p>Décimoprimer.- Resolución e Incumplimientos.</p> <p>El presente Acuerdo podrá resolverse por acuerdo mutuo de las partes o a instancia de una de ellas por incumplimiento grave y reiterado de las condiciones fijadas en el mismo.</p> <p>Y en prueba de conformidad, las Partes firman el presente Acuerdo de Colaboración, en el lugar y fecha de la firma electrónica, quedando copia de un ejemplar en poder de cada una de las Partes firmantes.</p>

<p>OIARTZUNGO UDALA Izpta: Joana Mendiburu Garaiar ALKATEA</p>	<p>ITELAZPI, S.A. Izpta: Xabier Zubiaur Agirre Zuzendari Nagusia</p>
---	---

II. ERANSKINA

Espedientearen kodea: 2026ZZ200017

Espedientearen gaia: Oiartzungo udalaren eta Haurtzaro ikastolarekin hitzarmena (2026)

Titularra: HAURTZARO IKASTOLA

Sarrera data:

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

BILDURIK

Alde batetik, Joana Mendiboure, Oiartzungo alkatea, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Bestetik, Lorena Zalakain Lopez anderea, 15.258.591 T zenbakiko nortasun-agiria duena, Haurtzaro Ikastolaren izenean eta ordezkartzan diharduena bere ahaldun gisa eta helbidea Oiartzunen duena.

Beren karguek berariaz eskaintzen dizkieten funtzioak erabiliz, beraz, elkarri onartzen diote lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko nahikoa gaitasuna eta xede horrez,

AZALTZEN DUTE

I.- Haurtzaro Ikastola Herri Onurako izendapena duen ikastetxea da, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren 2004ko ekainaren leko aginduaren bidez. (Argitalpena: 2004ko uztailaren 6ko 127. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), IFZ F20071809 duena.

Haurtzaro Ikastolak Oiartzungo herriaren identitate eta nortasunarentzat ezinbestekoak diren euskara eta euskal kultura oinarriturik gauzatu du eta gauzaten jarraitzen du bere hezkuntza proiektua.

Haurtzaro Ikastola eta ikastolen kolektiboa osatzen duten gainerakoak Euskal eskola propioaren bidea urratzeko sortu ziren. Bide horretan, ikastolen kolektiboak egoera ekonomiko estu eta zailak bizi izan ditu, eta egun oraindik, bizi ditu.

Betidanik egon da lankidetzazko harremana Haurtzaro Ikastola eta Oiartzungo Udalaren artean. Era berean, Haurtzaro Ikastola beti egon da irekia sortzen diren ekimenei babes eta laguntza emateko eta baita herrigintza lantzeko asmoz antolatzen diren ekimenak aurrera ateratzeko ere. Horren adierazle, 2017tik 2025era indarrean egon den hitzarmena.

II. Oiartzunen ikasle gehien matrikulatzen dituen ikastetxea izanik, Oiartzungo Udalarentzat ezinbestekoa da Haurtzaro Ikastolaren hezkuntza proiektua. Horregatik, hitzarmen hau sinatzeko interesa azaltzen du.

Honi gaineratu behar zaio:

- Hautzaro Ikastolak, bere instalazioak doan uzteko konpromisoa hartu du eta baita euskara eta euskal kultura sustatzeko lanean jarraitzeko eta herrian sortzen diren ekimenei babesa eta laguntza emateko.
 - Zentzu horretan, 2025ean udalak bereganatutako musika-eskola zerbitzuari aurre egiteko, Hautzarok bere instalazioak eskaini ditu eta, gauzak horrela, udal musika-eskolaren 2026ko lehen ikasturtea Hautzaro Ikastolaren instalazioetan emango da.
 - Aurrerantzean ere, nahiz eta udalak musika-eskolarentzat egoitza berri bat egiteko asmoa izan, eguerdiko ikastaroentzako gelak, ikasleak desplazatzen ibili ez daitezen, Ikastolaren geletan bertan emango dira.
 - Horrezaz gain, Ikastolaren gelak eskola ordutegitik at, udalak bultzatutako ekimen eta jardunetara ere bideratu ahal izateko akordioa lortu da. Zehazki, Ikastolak 12 gela jarriko ditu udalaren esku, udalak, edo elkarlanean ikastetxeekin, antolaturiko eskolaz kanpoko jardunarentzat.
 - Jardun edo ekintza horien artean Oiartzungo musika taldeen entseguak egongo dira, beti ere udalak jarritako ordutegi eta gainerako baldintzetan eta Ikastolaren eskola ordutegitik kanpo eta Ikastolaren egunerokotasunean eragin gabe.
- III. Oiartzungo Udala, sail ezberdinen bidez, beste erakunde publiko eta herriko taldeekin batera elkarlanean aritzen da kulturaren sustapenean Oiartzungo Udalak, mota askotako kultur programa eta proiektuak laguntzen ditu. Proiektu honek zehazki, Oiartzungo herriaren identitate eta nortasunarentzat ezinbestekoak diren euskara eta euskal kultura oinarriturik gauzatu da eta gauzatzen jarraitzen da bere hezkuntza proiektuaren bitartez.
- IV. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoak, 17.1 20) artikuluan xedatutakoaren babesean, udalak eskumenekoak dira, eskumen propio gisa, beren lurralde eremuan Kultura eta kultura-jarduerak antolatzen eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea. Hauxe da azken finean hitzarmen honen xedea eta horretan datza interes publikoa.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan xedatutakoaren babesean beste eskumen hauek izendatzen ditu, besteak beste, Udalerrien eskumen propioak gisa: 17. Artikulua:

- 19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
- 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
- 23) Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
- 26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

Hauxek dira azken finean hitzarmen honen xedeak eta horretan datza interes publikoa.

- V. 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, herri administrazioen arteko hitzarmenak eta baita entitate pribatuekin hitzartutakoak arautzen ditu eta horien gutxieneko edukia zehazten du. Ildo horri eutsiz, baldintza bat da hitzarmenean berariaz herri administrazio sinatzaileen jarduna oinarritzeko aginpidea definitzea.
- VI. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak, 6.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eremutik salbuetsiak geldituko dira tokiko erakundeek sinatzen dituzten hitzarmenak, betiere edukia lege honek ala administrazio arau bereziek araututako kontratuen barruan ez badago. Hitzarmen honen edukia ez da obra, hornidura edo zerbitzuen kontratuaren berezkoa, ezta legezko testu horretan arautua dagoen gainerako kontratuena ere.
- VII. Hitzarmen honek, Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren, udal aurrekontua gauzatzeko oinarrien eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, “Oiartzungo herrian hezkuntza parekidean berrikuntza sustatu eta hezkuntza eskaintza hobetzea, ikastetxe ezberdinen jarduera lagunduz eta bultzatuz. Haurtzaro Ikastolaren azpiegituren mantentze-lanetan genero ikuspegia txertatuz” helburu duen dirulaguntza lerroa jasotzen du, eta beharrezkotzat jotzen da dirulaguntzaren xede den jarduera, hitzarmen honen lehen klausulan definitu eta zehazten dena.
- VIII. Aurreko guztia kontuan hartuta, alderdi sinatzaileek beharrezkotzat jotzen dute lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena klausula hauen baitan gauzatuko da:

KLAUSULAK

Lehena.- Lankidetzaren hitzarmenaren xedea eta epea.

Hitzarmen honen xedea da Haurtzaro Ikastolari defizita estaltzeko dirulaguntza ematea da.

Halaber, hitzarmen honen bidez Oiartzungo Udalaren eta Haurtzaro Ikastolaren arteko lankidetzaren baldintzak zehazten eta arautzen dira.

HAURTZARO IKASTOLAK JASOKO DITUEN DIRULAGUNTZAK.

1.1. Ohiko mantentze-lanak eta obra txikiak bideratzeko.

- a) Haurtzaro Ikastola Kooperatibak dirulaguntza hori erabiliko du honakoak ordaintzeko: atezainaren soldata ordaintzeko eta ondorengo kostuak estaltzeko: mantenu konponketa txikiak, argindarra, erregaiak, igogailua eta berogailuaren mantenua eta eraikinaren garbiketa.
- b) Aurtengo diru kopurua gehienez 412.543,86 € koa izango da.
- c) Aurreko puntuan azaldu den eran kalkulaturik zehaztu den diru-laguntzaren zenbatekoa Oiartzungo Udalak hamabi zatitan ordainduko dio Haurtzaro Ikastolari, hileroko egingo diren diru ekarpenen bitartez, bakoitza 34.378,65 € koa.

Hitzarmen honen indarraldia azken sinaduraren egunetik 2026ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Iraunaldi barruan dokumentu honetan hitzartutako kontzeptuei dagokionez Haurtzaro Ikastolaren oinarrizko finantzazioa aldatuko balitz, akordio hau berritu ahal izango da.

Bigarrena.- Elkarte onuradunaren betebeharrak.

2.1. Haurtzaro Ikastolak, euskal hezkuntza sistema propioaren eraikuntzan, herrian ematen diren eztabaidetan parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

2.2. Haurtzaro Ikastola irabazi asmorik gabeko eta herri onurako izendapena duen erakundea da. ondorioz, Ikastola desagertzen bada, bere patrimonioa Oiartzungo udalaren esku geldituko da, eta lortutako irabaziak hezkuntzan berrinbertituko dira.

2.3. Udalaren partaidetza Ikastolako kudeaketan: Udalak Ikastolako kontseilu errektorean parte hartzeko eskubidea izango du, kooperatiben legeak jasotzen duen moduan, ahotsarekin eta botorik gabe. udal ordezkariak, beste kontseilukide guztiek bezala, Ikastolako estatutueta jasotzen diren arauak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, batez ere informazioaren konfidentzialtasunari eta erabilera zuzenari dagokienean.

2.3.1. Giza baliabideen kudeaketa: Ikastolako langileak aukeratzeko prozesuetan udalak informazioa jasotzeko eskubidea izango du (langileen kontratazioa, ardurak karguen aukeraketa, zuzendaritzaren aldaketak, organigrama aldaketak...), prozeduretan gardentasuna, eta merezimendua eta gaitasunaren irizpideak betetzen direla egiaztatze aldera.

2.3.2. Kudeaketa ekonomikoa: Udalak, kudeaketa ekonomikoaren inguruan, informazioa jasotzeko eskubidea izango du (aurrekontuak ikuskatu, inbertsioak, bideragarritasun planak...)

2.3.3. Eskolaz kanpoko jardueren eta zerbitzu osagarrien kudeaketa: jangela, garraioa eta eskolaz kanpoko jardueretan, udalak informazioa jasotzeko eskubidea izango du.

2.3.4. Mantentze-lanen kudeaketaren berri (garbitasuna, obrak...): Ikastolak, Udala informatzeko konpromisoa hartzen du. garbitasunaren kontratuan aldaketak izanez gero, edo obra berriak egitea erabakiz gero, udala jakinaren gainean egon beharko du.

2.4. Ikastolak jarduera laikoak bultzatuko ditu. Ikastolako estatutueta jasotzen denez, Ikastola akonfesionala da, eta udalak printzipio hori konpartitzen duenez, Ikastolak ahaleginak egingo ditu ohitura, sinismen eta kulto erlijiosoak alde batera uzteko eta hezkuntza proiektu laikoa bultzatzeko.

2.5. Parekidetza Ikastolan: hezkuntza komunitateak jarrera parekideak bultzatuko ditu eguneroko bizitzan.

2.6. Aukeren berdintasuna bermatzea. bazterketa arriskuan (pobrezia, diskapazitatea, jatorria, kolektibo gutxiak...) dauden ikasleei arreta emango die. aniztasunari arreta eta erantzun egokia emango dizkio.

2.7. Matrikula egiteko garaian, Oiartzungo herritarrei lehentasuna emango zaie. ikasleria onartzeko garaian, oiartzuarrek lehentasuna izango dute.

2.8. Ikastolak ikasturteko jardueren memoria Udalari zabalduko dio. memoria honen edukia ikasturtean zehar adostuko da.

2.9. Udalak, Ikastolaren ikasgelak eta espazio amankomunak erabiltzeko lehentasunezko aukera izango du. Ikastolak konpromisoa hartzen du bere instalazioak Oiartzungo Udalari eta Oiartzungo herriari doan, orain arte bezala, eta bere jarduera bermatzen den neurrian, uzten jarraitzeko, hitzarmen honen aurrekarietan jaso den terminoetan. gainera, gelen erabileraz aparte, jolas eremua eta patioa irekita egongo dira 24 orduz erabilera publikoa izan dezaten. Espazio guzti horiek irekita egoteaz eta garbitasunaz ikastola arduratuko da.

2.10. Haurtzaro Ikastolak gizarte hezkuntza kontseiluan, eta plangintzako aholku batzordean parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

2.11. Ikastolak herriko beste erakundeekiko errespetuzko jarrerak bultzatuko ditu. herriko eragileekin izan ditzakeen balizko gatazketan, Oiartzungo Udalari bitartekaritza lana egiteko ahalmena aitortzen dio.

2.12.- Haurtzaro Ikastolak hitzarmen honetan ezartzen diren oinarriei eragiten dieten edozein aldaketa Oiartzungo Udalari komunikatu beharko dio.

2.13.- Haurtzaro Ikastolak bere gain hartuko ditu bere lanak garatu ahal izateko beste pertsona edo erakunde batzuekin egiten dituen kontratuzko harremanak, Udala lan-erantzukizun guztietatik salbuetsiz.

2.14.- Oiartzungo Udalak eragileekin koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko dituen foroetan parte hartzea horrela dagokionean (Kultura Saileko egitasmo zehatzak, jai-batzordea,...).

Hirugarrena.- Baliabideak

Haurtzaro Ikastolak bere giza-baliabide propioekin garatuko du bere jarduera.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren ezaugarriak.

4.1.- Oiartzungo Udalak, Haurtzaro Ikastolari, dirulaguntza emango dio honakoak ordaintzeko: atezainaren soldata ordaintzeko eta ondorengo kostuak estaltzeko: mantenu konponketa txikiak, argindarra, erregaiak, igogailua eta berogailuaren mantenua eta eraikinaren garbiketa.

4.2.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Oiartzungo Udalak Haurtzaro Ikastolari, 2026an 412.543,86 € ko dirulaguntza emango dio udal aurrekontuetako udal aurrekontuko 1 0312.481.323.00.02 eta 1 0312.481.324.00.02 partidei egotziko zaio.

4.3.- Dirulaguntzaren ordainketa.

Ordainketa-egutegia:

Oiartzungo Udalak hamabi zatitan ordainduko dio Haurtzaro Ikastolari, hilero egingo diren diru ekarpenen bitartez, bakoitza 34.378,65 €koa izango delarik.

4.4.- Haurtzaro Ikastolak jasotako dirulaguntza onuradunaren xedean aipatutako ekintzak finantzatzeko erabiliko du.

Bosgarrena.- Dirulaguntza emateko prozedura

Hitzarmen honen xede den dirulaguntza Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 28. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da, eta dirulaguntza hitzarmen honen bidez gauzatzen da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a) eta 28. artikuluetan adierazitakoari jarraiki, Oiartzungo Udalaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuan modu izendunean aurreikusitako dirulaguntza baita.

Seigarrena.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Hitzarmen honen arabera Udalak ematen duen dirulaguntza, bertan jasotako klausulez gain, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, hura garatzen duen erregelamenduak, dirulaguntzen udal ordenantzak eta administrazio zuzenbideko gainerako arauak arautuko dute, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Zazpigarrena.- Onuraduna

Dirulaguntza honen erakunde onuraduna Haurtzaro Ikastola da, eta horrek berekin dakarren laguntza modalitatea da hitzarmen honen xede den proiektua gauzatzeko behar den diru kopurua ematea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 2.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren jarraipena (Batzorde mistoa).

8.1. Hitzarmen hau ikuskatu eta hobe jarraitzeko, batzorde mistoa eratuko da eta alderdi sinatzaile bakoitzak bi ordezkari izango ditu.

Batzorde mistoaren bileren helburuak, besteak beste, honakoak izango dira:

- Hitzarmen honen gauzatzearen jarraipena eta sustapena egitea.
- Hitzarmenaren interpretaziotik eta gauzatzetik sortutako arazoen konpontzea.

8.2. Batzorde mistoa edozein alderdik eskatu ostean bilduko da, eskatu eta hurrengo 7 egunen buruan.

Bederatzigarrena.- Ekintzen eta dirulaguntzaren justifikazioa.

9.1. Haurtzaro Ikastola hitzarmenarekin lotuta dauden aktibitateen informazio garden eta argia Oiartzungo Udalaren esku uztera konprometitzen da.

9.2. Hitzarmen honen baitan ematen den dirulaguntzaren justifikazioa, justifikazio kontu baten bidez egingo da. Justifikazio kontuak ondoko agiri edo dokumentuak izango ditu:

- Hitzarmen honetarako dirulaguntzaren helburu diren jarduerak azaltzeko memoria, lortutako emaitzen balorazioa eta hala badagokio, etorkizuneko lan ildoan azalpena.
- Azterlan, programa, argitalpen, iragarki txartel eta laguntza ekonomikoaren ondorioz garatutako jardueran sortu den dokumentazio grafikoaren eta idatziaren ale bat.
- Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Gastuen egiaztagiriak: fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuak, diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ondoriozko gastuei eta sarrerei dagozkienak.
- Fakturen eta ordainketa ziurtagirien kopiak.
- Faktura edo dokumentu baliogabe oro ez da kontuan hartuko jasotako dirulaguntza justifikatzeko orduan.
- Dirulaguntza hau, xede bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabideretik bateragarria izango da, aipatu dirulaguntzen arautegi erregulatzailerak ezar lezakeena kaltetu gabe. Dena den, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez berak bakarrik ezta beste dirulaguntza, sarrera edo baliabideri gehituta ere.

9.3. Hitzarmen honen baitan ematen den dirulaguntzaren justifikazioa hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztu beharko da.

Hamargarrena.- Dirulaguntza egiaztatu eta itzultzeko jarduketak.

- 10.1. Haurtzaro Ikastola Udalak egin ditzakeen egiaztatze jarduketan mende egongo da, Udalak emandako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta hura garatzen duen erregelamenduan xedatutakoaren arabera.
- 10.2. Dirulaguntzaren onuradunak hitzarmen honen arabera bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, emandako dirulaguntza itzuli beharko du, larritasuna kontuan hartuta, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean araututakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe lege horren arabera ezar daitezkeen zehapenak.

Hamaikagarrena.- Antolatutako jardueren izaera eta sortutako materialen erabilera.

- 11.1. Haurtzaro Ikastolaren jarduera hauen antolaketaren helburua ez da onura ekonomikoa lortzea, proiektuaren kostua ordaintzea baizik.
- 11.2. Haurtzaro Ikastolak bere jardueren ondorioz sortzen diren paperezko zein multimedia edukiak Oiartzungo Udalak erabiltzeko baimena ematen du, beti ere egilea zein den aipatuz eta erabilera ez komertzialerako bada.

Hamabigarrena.- Hizkuntzen erabilerarako irizpideak.

- 12.1. Irizpide orokorrak. Onuradunak Udalarekin eta herritarrekin duen harremanean irizpide orokor hauek jarraitu beharko ditu.

- Udalarekin harremana euskaraz izango da:

- Udal langileekiko ahozko harreman guztiak euskaraz izango dira (bilerak, aurrez aurreko harremanak, telefono bidezkoak...).
- Udalarekiko idatzizko harremanak euskaraz egingo dira (jakinarazpenak, posta elektronikozko mezuak, txostenak...).

- Herritarrekiko harremana euskaraz izango da, euskaraz ez dakitenen hizkuntza-eskubideei kalterik egin gabe:

- Hizkuntza-paisaia

- Herritarren bistan jarri beharreko agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz egongo dira.
- Jarriko den publizitatea euskaraz egongo da.

- Ahozko harremana

- Gauzatuko den jarduera euskaraz izango da.

- 12.2. Irizpide berezituak. Onuradunak jarraian azaltzen diren ekintzetako bat antolatzen duenean irizpide berezituak kontuan hartu beharko ditu.

Hitzaldiak: Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik ondoriozta daitezkeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatuko balitz, hizlari elebidunak hobestea, - hizlaria euskalduna izatea ezinezkoa balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea- euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezkeen.

Kasu horretan, ekintzaren propaganda euskaraz egingo da, eta berariaz aipatuko da ekintza ez dela euskaraz izango. Herritarrei ez zaie inolako mugarik jarriko euskaraz jarduteagatik, eta antolatzaileak arduratu beharko du parte hartzaileek elkar ulertzea.

Ikastaroak: Udalak Haurtzaro Ikastolarekin elkarlanean diruz laguntzen dituen ikastaroetan irakasteko ezinbesteko baldintza izango da irakasleak euskaldunak izatea.

Hamahirugarrena.- Parekidetasun irizpidea.

- 13.1. Haurtzaro Ikastolaren jardunean parekidetasun printzipioa bultzatuko da. Antolatzen dituzten ekimen, jarduera eta programetan parte hartze datuak sexuagatik desagregatuta jaso eta Udalari aurkeztu beharreko memorietan informazio hori emango zaio.
- 13.2. Dokumentazio eta jarduera guztian hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistak erabiliko dira.
- 13.3. Genero ikuspegia txertatzeko ekimenak antolatuko dira eta datuen bilketan ere generoaren arabera desagregatuta.

Hamalauugarrena.- Ingurumen irizpideak.

Haurtzaro Ikastolaren jardunean, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dira kontuan ondorengo alorretan:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Hamabosgarrena.- Datu babesa.

Hitzarmenaren xedean adierazitakoaren arabera ez da beharrezkoa Oiartzungo Udalarenak diren datu pertsonalak eskuratzea.

Horrela, debekatuta dago Oiartzungo Udalarenak diren datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta ikustea.

Datu pertsonalak nahi gabe eta baimenik gabe ikusiz gero, erakundeak konpromisoa hartzen du ezagutu dezakeen informazioa sekretupean eta isilpean gordetzeko, eta arduraduna den erakundeko datuen babesaren ordezkariari gertatutakoa berehala jakinarazteko.

Horiek horrela, erakundeko langileak behartuta daude datuak hirugarren pertsonari ez ezagutaraztera, transferitzera, ematera edo jakinaraztera, eta betebeharrak hori Oiartzungo Udalarekin duten harreman juridikoa amaitu ondoren mantenduko da.

Oro har, Oiartzungo Udalak ezarritako eta emandako informazioaren segurtasun neurriak eta jarraibideak bete beharko dira.

Dena den, lankidetzaren hitzarmen hau betetzearekin zerikusia duten datu pertsonalen eskubideak (atzipena, zuzenketa, deuseztatzea, tratamendua mugatzea, eramangarritasuna, kontra egitea eta antzekoak) Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari ingurukoak; 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, eta araubidezko gainerako lege xedapen aplikagarriek xedatutakoarekin bat arautuko dira.



OIARTZUNGO
UDALA

Hamaseigarrena.- Hitzarmena indargabetzea.

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoia izango da erakunde onuradunak ez betetzea dirulaguntzaren ondorioz bere gain hartutako betebeharrak, eta, ondorioz, itzuli egin beharko du emandako dirulaguntza, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe ezar daitezkeen zehapenak.

Hamazazpigarrena.- Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio eskuduna

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta interpretazioaren, betearazpenaren eta ebazpenaren inguruan sortzen diren arazoak administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo eta auzitegiek ebatziko dituzte.

Adostasunaren lekuko, hemen ordezkaturako alderdiek lankidetzaz hitzarmen hau sinatzen dute goiburuan adierazitako datan eta tokian.

Oiartzungo Udaleko alkatea

Haurtzaro Ikastolaren lehendakaria

Joana Mendiboure

Lorena Zalakain

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: ESKU1ccaee56-343f-4f76-83a2-e78795c8e9ab

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026ID370003-Akta/Akta (OIARTZUNGO UDALA)